



SAGASTIBERRI

Urruzunotarrak  
gehituz

2016



irakaskuntza ertainetako

# Urruzunotarrak gehituz

literatura-ekimena 2016

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2016ko uztaila

Ale-kopurua: 1.725

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Prestatzaileak Iñaki Iturain, Iñigo Barruso  
eta Veronica Muñoz

Azala: Txapo Creativos S.L.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa eta inprimategia: R.G.M., S.A.  
Polígono Igeltzera Pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia

ISBN: 978-84-457-3405-6

Lege-gordailua: BI 919-2016

## AURKIBIDEA

<b>Hitzaurrea</b> .....	7
-------------------------	---

<b>Zergatik idatzi ? Leire Bilbao</b> .....	11
---	----

### **Prosa: A maila**

REM .....	<i>Mikel Izagirre Egiguren</i> .....	19
Xakea .....	<i>Irati Jauregi Unanue</i> .....	33
Ez da posible .....	<i>Idoia Granizo Uribarrena</i> .....	43
Itsaso .....	<i>Inge Revuelta Bustingorri</i> .....	55
Iturria .....	<i>Manez Ormaetxe Paskual</i> .....	63
Elurretan .....	<i>Irati Ramos Etxeandia</i> .....	73
Ezin ahaztu .....	<i>Miren Aizpuru Bilbao</i> .....	81

### **Prosa: B maila**

Post mortem .....	<i>Peru Amorrortu Barrenetxea</i> ..	99
Zoria jokoan .....	<i>Patricia Gutierrez Crespo</i> .....	113
Sehaska beltzean .....	<i>Nadin Hussein Hernandez</i> .....	127
Kristal lodiaren beste aldean .....	<i>Lur Gaztelumendi Beristain</i> ..	133
Larunbatak .....	<i>Miren Etxebarria Martinez</i> ..	139
Behingoz .....	<i>Nerea Mendiburu Bravo</i> .....	147

### **Poesia: A maila**

Udaberria heldu arte . . . . .	<i>Irati Ramos Etxeandia . . . . .</i>	157
Ilargia itsaspean . . . . .	<i>Saioa Etxegia Eizagirre . . . . .</i>	163
Fikzio konpartitua . . . . .	<i>Maddalen Omaetxebarria Landa . . . . .</i>	171
Amodiozko hiru poema eta kanta etsi bat . . . . .	<i>Iker Ondartza Padierna . . . . .</i>	179
Kaiolarena zen enera . . . . .	<i>Olatz Martiartu Ayestaran . . . . .</i>	185

### **Poesia: B maila**

Bitxilore, zu traidore . . . . .	<i>Maddi Aiestaran Iparragirre . . . . .</i>	193
Azken geltokia . . . . .	<i>Mattin Apaolaza Cardona . . . . .</i>	197
Askatasun hegoak . . . . .	<i>Lur Gaztelumendi Beristain . . . . .</i>	201
Itsasoz beteriko mugetarantz . . . . .	<i>Josu Iburguren Elosegui . . . . .</i>	207

<b>Urruzunotarrak 1986-2016 . . . . .</b>		<b>213</b>
---	--	------------

## HITZAURREA

Urruzuno literatura lehiaketa 1986an antolatu zen lehenengo aldiz, azken urteotan “Urruzunotarrak gehituz” izenpean egin bada ere. Beraz, hiru hamarkada igaro dira dagoeneko ekimen hau martxan jarri zenetik.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehunetik gora dira dagoeneko “titulu” hori lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu egin dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urteotan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen ari zaizkigu Urruzunotarrak gaurko kazetaritzako eta literaturako izenen artean. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraiatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaioetasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Beharbada ez duzu asmatu barruan duzun hori oraingoan kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da: “saiatu” besterik ez.

Gatozen orain aurtengo lehiaketaren datuak ematera. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen lankidetzatza izan dugu edizio honetako epaimahaian:

Castillo Suarez  
Urtzi Urrutikoetxea  
Leire Bilbao  
Miren Agur Meabe  
Katixa Agirre

Parte hartzeari dagokionez, 2016an 151 lan jaso ditugu: A mailan: 94. Prosan: 48; eta poesian: 46. B mailan, berriz: 57. Prosan: 46; eta poesian: 11. Parte-hartzaileetako 118 neskak dira, eta 33, mutilak.

Aurten ekimenak 22 bikaintasun-aipamen ditu: prosa eta poesia arloetan eta, adinaren arabera, A eta B mailetan. Poesia A atalean bost sari eman dira. Poesia B atalean, lau. Prosa A mailan, berriz, zazpi aipamen ematea erabaki du epaimahaia. Eta prosa B mailan sei izan dira saritutako lanak. Guztira, beraz, 20 saridun, baina 22 aipamen (22 idazlan); izan ere, bi idazlek bina aipamen jaso dute, sari bana prosan eta beste bana poesian.



Aipamendunek irailean bost eguneko literatura-egonaldia egingo dute aterpe batean. Egonaldian zenbait literatura tailer izango dituzte, idazle batzuek bideratuta.

Sagastiberri sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenean argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean Urruzunotarren zerrenda jarri dugu. 1986tik 2016a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen arabera alfabeto-ordenean. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztioi eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Leire Bilbaori.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakurtzeko eta idazteko zaletasuna zure ikasleen artean zabaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**



# **ZERGATIK IDATZI ?**

Leire Bilbao



Zeure buruari honezkero galdetuko zenion, zergatik idazten duzun. Edo erantzunaren beldur, oraindik ez zara ausartu galdera egitera. Dena delakoa dela ere, helduko da unea edo eguna zeure barneko kazetariak edo hirugarren batek galdetuko dizuna.

Eta agian, zeure burua deskubrituko duen erantzuna aterako zaizu. Akaso, gezur edo txiste batekin egingo duzu ihes. Edo kontrara, benetan konbentziaraziko zaituen erantzunaren bila jarraituko duzu temati. Zertarako idatzi? Zertarako izendatu? Zertarako kontatu?

Gauza bakarra da ziurra, galdegilea (zerorri baldin bazara ere berdin balio du) madarikatu egingo duzu.

Pertsona bakoitzak bere arrazoiak dauzka, argumetuak eta azaltzeko moduak bezala. Badira, besterik egin ez dakitela erantzuten duten idazleak, bizitza osoan besterik egin ez dutela argudiatuz gainera. Badira, erantzun arraro, xeble eta topikoagoak ere: beldurragatik, desasoseguagatik, maitatu eta maitatua izateko, jakin eta ikasteko, beste bizitza batzuk bizitzeko, errutina hiltzeko,

testigantza emateko, gustuko duelako eta kito, arnasa hartzeko, munduaren desordenak haserretzen duelako...

Amelie Nothomb idazleari zergatik idazten duen galdetzen diotenean, zera erantzun izan du: berak ez zuela idaztea aukeratu. Maitemintzea bezala dela. Bazekiela ez zela ideia ona, baina horraino iritsita saiatu egin behar zela. Energia, pentsamendu eta denbora guztia dedikatzen ziola idazteari. Ekintza bat dela idaztea, maitasuna bezala egin behar den zerbait, baina ezin dena, zoritxarrez, maitasun bat bezala aukeratu.

Flaubertek zioen bizitzeko modu bat zela idaztea. Eta orain gogora ekarri ezin dudan idazleren batek, era berean bizirik eta hilik egoteko modu bat zela gehitu zion ironiaz Flauberten esaldiari.

Idaztea mina eta plazera baita, Franz Kafkak ondo zekien bezala, Eta zer dator ondoren? galdetzen zion F. Kafkak bere buruari. "Isiltasuna, agian" erantzun zion zeharka George Steinerrek.

Anna Ajmatovak, ostera, Leningradoko kartzelen ilara luzeetan hamazazpi hilabete eman zituen bere semea ikusteko esperoan. Han gertatzen zena jasota uzteko idatzi zuen. Justizia poetikoa egin nahian, bestelakoa egingo ez zenez.

Jean Paul Sartrek, konpromisorako arterik egokiena zela zioen.

Margaret Atwoodek galdera batekin erantzun zion behin galdera horri. "Eta zergatik ez du mundu guztiak idazten? Oso kontu gizatiarra da idaztea".

Antonio Tabucchik, hemen egon arren, han egon nahi duelako idazten du. Zer da ba literatura, ibilgailurik bizkorrena eta ekologikoena ez bada? Noranahi eraman zaitzake irudimenak, zeureak edo besterenak.

Gure euskal idazle batek dio, *Zu* idatzi duenak alegia, idaztea bere buruarekin hitz egitearen aldagai bat dela, baina landuagoa, masokistagoa, bere buruaren erantzun badaezpadakoek -anbiguotasuna, amarru eta jukutriak-pisatzeko balio dion lanabes salataria. Izan litekeen trepetarik onena bere buruarekin lehia dialektikoak izateko. Bere buruarekin dauzkan harreman gorabeheratsuen fruitua da idazten duena. Inori esango ez lizkiokeenak esaten dizkio bere baitako frontoiari, inori aitortu gabekoak botako ditu bere buruaren hormara, hark jaso eta itzul ditzan eta erabaki nola eman forma eta nola bihurtu testu.

Bada, irakurtzen duen arrazoi berberengatik idazten duenik ere. Bada, buruan duen irudi zirimola geldiezin paperean jartzeko premia duenik, buruak eztanda egingo ez badio. Bada, zergatik idazten duen pentsatzen ez duenik edo bere buruari horretarako erantzun borobil bat eman ezinean dabilen idazle kontsakturik (esan nahi baita, erantzunetan erantzunik borobilena!). Bada, bere burua harritzeko idazten duenik. Edo orri zuriaren edo teklatu beltzaren gainean bada ere, ordu batzuez funanbulista izatearen sentsazioaz gozatzeko idazten duenik; ezker edo eskuinera eroriko ote den edo sokaren hari fina zeharkatuko ote duen ez jakiteak sabelean sortzen dizkion tximeleten truke bakarrik.

Idazle batek baino gehiagok aitortu du, umetako irakurketekin aurkitutako plazerak bideratu zuela idaztera. Alegia, irakurketen ifrentzua dela idaztea.

Naturalena ez da idaztea, esan zuen idazle natural batek. Naturalena hitz egin edo akaso abestea da, baina ez norbere hitzak paperean jartzea. Eta orduan zertarako idatzi?

Hitzarekin jolasteko diote bertsolariek. Hizkuntza apurtzeko diote poetek. Hizkuntza apurtu eta berri bat sortzen jarraitzeko, gehitu nahi genuke batzuok.

Eta zuk zergatik idazten duzu? Zer diozu?



# **PROSA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak



# **REM**

Mikel Eizagirre Egiguren  
Zumaia BHI  
Zumaia



«Zein bitxi eta konplikatua den giza garuna. Horra ametsak, adierazle garbi. Beti amesten dugu, ametsen existentziaren jabe gara txikitatik. Hala eta guztiz ere, haietan murgilduta, ez gara gai bertan “bizitzen” ari garena irreala dela konturatzeko. Inguratzen gaituen oro benetakotzat jotzen dugu, inolako planteamendu logikorik gabe, arrazoa subkontzientearen kaiolan preso utzita, ametsaren puntu gorenean, *REM* fasean.

Insomnio larria dugunean denak dirudi erreala geure buruan. Hogeita lau ordutan zehar loaldi erregularrak eta jarraituak ez izateak errealitatearen distortsioa sortzen du.»

Goizeko laurak pasatxo izango dira, oraindik ezin izan duzu begirik itxi. Zenbat denbora daramazu martxa honetan, Simon? Pare bat hilabete? Hirurogei egun pasatxo insomnio kronikoa diagnostikatu zizutenetik. Egunean zehar tarteka lo, gau osoak itzarririk, denboraren eta errealitatearen nozioa zeharo difuminatuta. “Amesten ari ote naiz?”, “zenbat denbora daramat lorik egin gabe?”, “ezin diat gogoratu hemen lo hartu izana...” bezalako galderak egiten dizkiozu zeure buruari etengabe.

Oheburuko iratzargailuak gorriz *04:16* markatu du. Hamasei zenbakiari so geratu zara, seia zazpi bihurtzeko espektazio handiz. Zain zaude. Minutua aspaldi igaro dela iruditu zaizu, ordea. Segundoak minutu, minutuak ordu, orduak egun bihurtzen dira zure gogoan.

Halako batean, seia itzaltzen hasi dela konturatu zara. Emeki-emeki aldatzen ikusi duzu digitua, hainbat fotogramatan banatuta, usoen ikusmena izango bazenu bezala. Berrez, segundo erdia baino gutxiagoan kontsumitzen den eta egunerokotasun arruntean, hautemanekin suertatzen zaigun instant hutsal hori infinituaren pare jarritz. Egon, badirudi *LED* argi gorriak pixkanaka itzaltzen doazela, harik eta guztiz desagertu diren arte, zazpia agertzea espero den trukaketan.

Zazpia, ezta?

Hala irakasten digute kontatzen txikitatik. Segida logiko aldaezin amaigabea. Kasu honetan ez, ordea; seia desagertzearekin batera forma arraro ezezagunak agertzen hasi dira pantailaren beltzunean, eskema eta konbikzio logiko-matematikoak hautsiz. Asaldatuta zaude, ingurura begira hasi eta forma arraro horiek baino ez baitituzu ikusten bueltaka. Burua edonora biratuta ere, hortxe diraute beren argitasun biziak, zure erretina kiskalduz. Sekulako itolarria eta beldurra sentitzen ari zara, ikusten duzun oro iluna eta psikodelikoa da, ez dakizu non zauden. Zure etxeke ohean ez behintzat.

Non zaude, Simon?

Ez dakizu. Ohean uste zenuen, baina jabetu berri zara ez dela hala. Ikusmena lausotuta duzu; ezin dezakezu ikusi non zauden, ezta horra nola iritsi zaren gogoratu ere.

— Simon Ivanović, ezta? -dio ahots sarkor batek, azentu amerikar nahastezinaz. Atzetik datorrela hauteman duzu. Burua alde guztietara biratu eta begiak zabaldua ere, errainu gorri bat besterik ez duzu ikusten begi er-tzetatik, iluntasunaren erdian. Hauek estaltzeko, zerbait jarri dizuten seinale. Arnasestuka hasi zara, mugitu ezinda; zerbaiti gogor lotuta behar duzu.

Zein ari ote zaizu hizketan? Erantzun.

— B... bai. Neu naiz.

Totalka, baina beno, saiatu zara. Zuzen erantzun diozu? Hala al da zure abizena? Ivanović? Egon, badirudi hizketan hastear dela.

— Turkiako iparraldeko base militar estatubatuar ba-tean harrapatua izan zara, soinean espioitzarako ekipoa du-zula. Zureek kontrakoa dioten arren, badakigu KGBrentzat egiten duzula lan.

— Nola! Nik... ez dut ezer gogoratzen.

— Zer demontre eman diozue honi, Miller? -Haserre hitz egin dio ahotsak inguruko kideren bati.

Estalkia kendu dizute bortizki, begiak argi-fokuen au-rrean biluztuz, azaleratu berri diren satorrak balira bezala. Behingoz ikusmena berreskuratzea lortu duzunean, orain-dik nahasmen handiz, ingurua identifikatu nahian zabilta. Altzairuzko mahai baten aurrean eserita dirauzu, haren gainean kolore marroiko karpeta bat eta zigarrokinez lepo dagoen hautsontzia. Mahaiaz bestalde, kolore gris iluneko hormaren kontra, fedoradun gizon bat, zuri begirik kendu

gabe zigarroa erretzen. Ezkerrean, paretaren gehiena har-  
tzen duen “*ispilu*” bat nabari da. Ez begiratu gehiegi horra.  
Badakizu ez dela ispilu bat, edo ez dagoela ispilu funtzioa  
betetzeko jarria behintzat.

Atzetik argazki batzuk jaurti dizkizute mahai gainera.  
Gizon desberdinei banaka ateratakoak dira. Morroi garran-  
tzitsuak behar dute izan, trajez jantzita eta eskoltatuak denak.  
Gainera ezkutuan eta urrutitik harrapatu dituztela dirudi.

— Ezagutzen al dituzu?

Kontzentratu zaitez argazkietan, Simon; ez dirudi mo-  
rroi honek txantxetarako gogorik duenik.

Urduritasuna menperatzen saiatu eta argazkietako gi-  
zonei so geratu zara, aurpegi ezagunak topatzeko asmoz.  
Lehenengo begirada batean, ordea, ez duzu inor ezagutu;  
bigarrenengan ere ez. Asko urduritu zara. Igarri dute ez  
duzula argazkiko gizonen inguruan arrastorik. Haserretzen  
ari dira. Tentsioa usain dezakezu galdeketa-gela txikiko ai-  
rean. Atzean zenuen gizona pauso arin urduriz parean jarri  
zaizu orain, mahaiaren gainean bi eskuak jarri eta begie-  
tara gertutik begiraturaz.

— Ez dituzu ezagutzen?

Zure erantzunaren zain gelditu da.

— Ez...

Horrek asko sutu du. Gezurretan ari zarela pentsatuko  
du seguruenik, edo bere kideek eman dizkizuten kolpeek  
eta drogek galdeketa zapuztu diotelako frustrazioa zurekin



ordaintzen jardutea ere posible da. Zigarroaren kea aurpegi-  
gira bota dizu. Eztulka hasi zara, bera garrasika:

— Hau ere ez al duzu ezagutzen?

Argazkietako bat hurbildu dizu, garrantzia eman nahian. Zuk, kearen kommozioa arintze aldera, begiak askotan kliskatu behar izan dituzu, behin ikusmena argituta irudiari ongi erreparatzeko. Goitik behera aztertu duzu argazkiko gizona: ile motz, argi eta ongi orraztua, traje ilunez jantzia, eite serioa sortzen zuen begi zapal eta luzexka haiekin. Ezpain finak ere, zeinek sudur puntazorrotz eta zabalarekiko tarte handia zuten, espresio gogor haren formula ziren. Kokotsa, berriz, biribildua eta laburra. Dagoeneko bere xehetasun eta ñabardura guztiak buruz ikasi dituzu. Egiantzeko erretratu bat marrazteko ere gai izango zinazteke, baina ezin duzu aurpegi hori ezertxorekin ere lotu.

— Zergatik ezagutu beharko nuke?

Erantzun lotsagabea eman diozu preso zaituen gizon armatu bati, Simon. Berehala konturatu baitzara gal-tzarbeko zorroan *MI911A1* bat duela. Baina antza denez, ez du gehiago haserretu zure ihardesprenak; horren ordeztu, bare-bare erantzun dizu:

— Zure nagusia delako, Vladimir Yefimovich Semichastny, berak bidali zaitu Turkiara.

— Ez dakit ezer. Ez dut dena delako Semichastny hori ezagutzen eta ez naiz KGBko agentea.

— Lelo aurpegia ikusi didazu? Basetik kilometro batera harrapatu zaitugu. Zertarako behar zenituen entzungailuak, makarov 9mm-a eta goi irismeneko kamera?

— Ez dakit zertaz ari zaren...

Nazkaturik, gizonak karpeta marroitik beste argazki bat atera du, handiagoa aurreko guztiak baino. Karpeta eta guzti mahai gainera bota dizu indar handiz, hautsontzia ukituz. Irudiarri begira geratu zara: oraingoan ez da gizon batena. Hasieran zer den ulertzeko lanak izan badituzu ere, konturatu zara lur-eremu bati airetik ateratako argazkia dela. Gainean, lauki zuri baten barruan tituluak honela dio hizki beltz lodiz:

MRB FIELD LAUNCH SITE  
SAN CRISTOBAL NO 1  
14 OCTOBER 1962

Irudian, azpiegitura batzuk ageri dira gezien bidez seinaturalurik, alboan hitz batzuk dituztela azalpen gisa:

ERECTOR/LAUNCHER EQUIPMENT  
8 MISSILE TRAILERS  
EQUIPMENT  
TENT AREAS  
CONSTRUCTIONS

— Ez zenuten, ba, usteko ez ginela konturatuko Kuban prestatu duzuen festaz!

Barre sarkastiko batez egin dizu galdera. Ikaratuta zaude, ez dakizu ezer, zer egingo ote dizute?, nola iritsi zara honaino? Ezin duzu sinetsi Turkiako kontua, ez baituzu gogoratzen.

Galdetzailearen mugimendu bortitzak atera zaitu zeure pentsamenduetatik. Aulkitik bizkor altxatu, eta hizketan hasi da.

— Berdin du, ez diguzu ezertarako balio.

Brastakoan M1911A1a atera du galtzarbegitik, segurua kendu, kargatu eta zuri zuzendu dizu.

Tiro hotsa.

Kolpetik astindu zaitu eta brinko batean esnatu zara, izerdi patsetan. Amets arraroa izan da, pelikuleroa oso. Ivanović? Barrea atera zaizu, gerra hotzeko filmak ikusteari utzi behar zenioke. Ridikulu sentitu zara, hain apartekoa, fikziozkoa den egoera bat sinesteagatik. Baina halakoak dira ametsak: «...*haietan murgilduta, ez gara gai bertan “bizitzen” ari garena irreala dela konturatzeko. Inguratzen gaituen oro benetakotzat jotzen dugu, inolako planteamendu logikorik gabe, arrazoia subkontzientearen kaiolan preso utzita, ametsaren puntu gorenean, REM fasean.*»

Gainera, zure kasuan insomnio kronikoa izanik, areagotu baino ez da egiten distortsioa. Inoiz ez dakizu ziurtasun osoz esna zauden ala ez.

Orain esna al zaude?

Hala behar du, oraintxe esnatu zara eta. Leihora zuzendu duzu begirada. Ekaitza ari du. Trumoiak. Galdetzailearen garrasiak eta tiro hotsa zure irudipenean. Ohean eserita zaude, ingurura begira. Zure logela zabal eta ordenatua. Pareta-argiek lasaitasun-kutsua ematen diote inguruari, ospitale baten seriotasunera iritsi gabe. Armonia kasuala.

Paretei begiak kendu dizkiezu azkenean iratzargailuari erreparatzeko. 06:37 AM. Lanera joateko ordua duzu. Jantzi eta sukaldarantz abiatu zara korridore luzexka ilunean

zehar. Pare bat tostada, kafe hutsa eta egunkaria mahai gainean. Kafeari zurrutaka ari zaren bitartean, egunkaria zabaldu duzu. Irakurtzen saiatu zara, baina ezinezkoa zaizu. Arraroa oso. Ingurura begiratu eta batere arazorik gabe ikusten duzu, baina ez zara gai egunkaria taxuz irakurtzeko. Kezkatzeko denborarik gabe, gosaltzeari utzi eta lanerako bidea hartu duzu. Inoiz baino azkarragoa eta ezezagunagoa suertatu zaizun arren, era automatizatuan egin duzu, ohitura balitz bezala, segituan iritsi baitzara lantokira.

Bulegoan betiko martxa nabari duzu, dinamismo marmartia. Bertako soinuek - telefono-dei, langile etsikor begizulodunen tekleatze, haien arteko solasaldi eta oihu ozen - buruko min ziztakaria eragin dizute oraingoan, ordea. Betikara bakoitzean autopista baten erdian ikusten duzu zeure burua. Soinu bakoitza auto beldurgarri bilakatu da. Zeure aldamenetik ziztu bizian pasatuz, harrapatzea ozta-ozta saihesturik. Zu berriz, erdian, babesgabe. CIAren itaunketan, fokuen argi kiskaltzaileen pean, buruko estalkia kentzen dioten espia sobietarraren antzera.

Belauniko jarri zara, belarriak esku-ahurrez estali eta begiak estutuz, zalaparta jasanezina baretu edo zeure burutik atera dadin bederen. Hala egon zara, batek daki zenbat denbora, norbaiten eskua zeure sorbaldan pausatzen sumatu duzun arte. Begiak apurka-apurka zabaldu dituzu. Jarraian eskuak belarrietatik emeki-emeki kendu eta altxatzeke geratu zara, belauniko, lurrera begira. Zarata desagertu da dagoeneko. Etsaitasunezko isiltasun urduria da nagusi orain.

Altxatu burua, Simon.

Sorbaldak ukitu dizunak zeure aurrean darrai, zapata beltz distiratsu apainak ikus baititzakezu, zoru grisean geldirik. Igogailuen antzera, zure begiak igotzen hasi dira parean duzun eraikinaren beheko solairutik teilaturaino. Nagusia da. Bizar luzea darama kokotsean beheara, mutur luzea haren gainean, begi biribil-biribil bana aurpegiaren albo bakoitzean. Baina bere ezaugarri deigarriena buruan duen adar pareak da, okerrak biak, bakoitzak bere aldera “S” forma zapala hartzen duela. Nagusiak aker-burua du. Sinetsi ezinik zaude, zeharo beldurtuta.

Nola liteke?

Ingurura begiratu duzu. Langileak euren postuetan eserita daude. Denak zuri begira. Zerbait arraroa dago hauengan ere: denek aurpegi berdintsua dute. Egon, ahuntzak dira. Lantokia ahuntz-taldea da. Nagusia, berriz, akerra, eta hizkuntza arrotz batean mintzo zaizu. Hala ere, badirudi lekuz kanpo zaudela dioela, gero eta haserreago, egoera jasanezina bihurtuz.

Halako batean, deabruzko oihu ozena askatu du akerrak. Belarrietatik odola hasi zaizu irteten, eskuez estali behar izan dituzu. Paretak gorritzen ari dira, tenperatura kolpetik igo da, ia kiskaltzeraino. Ahuntzak altxatu egin dira, zureganantz. Salto egin dizute gainera. Mugitu ezinik zaude, ito beharrean, ilunpetan, balaka artean. Ezin diozu gehiago eutsi biziari; zure zoria onartu eta begiak itxi dituzu. Pixkanaka, zaratak, itolarria, beroa... desagertu egin dira. Hilda zaudela uste duzu.

Zabaldu begiak.

Zerua. Hodeitsu, gris. Haize freskoa nabari duzu eskui-  
neko masaila laztanduz. Beste amets bat.

Zenbat doaz dagoeneko bata bestearen barruan?

Hiru amets, zein baino zein lazgarriago, bata bestearen  
barruan, guztiz ezohiko. Hau ere amets bat izan liteke.

Begiratu ingurura. Non zaude?

Zoru hotzaren gainean etzanda. Ez duzu gogoratzen  
nola iritsi zaren hona.

Hori ametsetan ohikoa da, ezta?

Enborra altxatu duzu, zangoak luzatuta, eserita gera-  
tuz. Teilatu batean zaude. Oihuak entzun ditzakezu be-  
hetik. Tente jarri eta ertzera hurbildu zara horien jatorria  
aztertzeko. Eraikin garaiaren gorenetik, mantal urdinez  
jantzitako gizon-emakumeak ikus ditzakezu, lorategi za-  
bal batean zehar, oso arraro jokatuz, bakoitza bere eran.  
Badira gorputza astinduz oihuka ari direnak. Baita lasaiak  
ere, baina bakarrikzeta etengabean daudenak. Edo isilik,  
begirada galduarekin, bizitzatik at diruditenak. Lorategia  
hesi garai batek inguratzen du. Ez dago zalantzarik: zoro-  
txe batean zaude, zeu ere urdinez jantzita.

Honek ere amesgaizto bat izan behar du. Eta zuk ames-  
teari utzi nahi zenioke, errealitatera itzuli, esnatu. Zu ez  
zarela zoroa diozu etengabe, guztiz konbentziturik.

Nola irten gaitzke ametsetatik?

Heriotzaren bidez. “*Amai dezagun amets honekin hasiera-hasieratik.*” esan duzu zeure kolporako. Ertzetik lurrari begira geratu zara. Behetik zoroak begira dituzu, txaloka. Arnasa hartu eta bi aldiz pentsatu gabe amildu zara, ez bat ez bi. Ametsa besterik ez baita azken finean, ezta Simon? Beraz, erortzen ari zarela ez duzu damutzeko betarik izan. Kolpe azkar batekin amaitu da. Jarraian iluntasuna, aurreko amets guztietan bezala.

Zein amets izango duzu orain, Simon? Ala errealitatera itzuliko zara? Noizbait utziko ote diozu amesteari?

Ez, oraingoan ez baitzara esnatuko, ezta amesten jarraituko ere.





# **Xakea**

Irati Jauregi Unanue  
Jakintza Ikastola  
Ordizia



Gaurkoa oso egun gogorra izan da. Horregatik, orain lotara joan behar dut bihar indarberrituta egoteko. Esnatu bezain pronto aitak istorio bat kontatuko dit, 2 urte irauten duen istorioa, nire istorioa, baina niri arrotza egingo zait.

16 urte nituenetik kontatzen dit istorioa aitak esnatu bezain laster. Esnatzerakoan bai, eta ez lo hartzerakoan, ohikoa den bezala. Istorioa edo historia, egia esan, ez du asko axola, ezta? Hau nire egunerokoa da eta inor ez da zuzentzera etorriko. Gainera, oraindik ez daukat oso argi zer den aitak kontatzen didana...

Nire irudiko, esnatzen naizen bakoitzean istorioa dirudi, egia esan, ez dakit egunero den, baina gaur behintzat hala izan da. Egunak aurrera egin ahala, konturatu naiz nire historia kontatzen didala aitak, biok igaro ditugun egun historikoak, historiara pasatuko diren egunak; edo hori da nik espero dudana behintzat, norbaitek gogoratzea egun horiek, istorio edo historia horiek, berdin du zer diren, baina gogoratzea, nik gogoratu ezin ditudanez gero.

\*\*\*\*\*

Nire ama taxista zen, baina horrez gain, eskola amaitzean xakeko klaseak ematen zituen bertan. Bere garaian hainbat txapelketa irabazitakoa zen eta horregatik genuen egongela berak irabazitako sari guztiekin beteta. Aitari hautsa pasatzea egokitzen zitzaionean izerditan hasten zen azkeneko baldara iritsi aurretik, eta aurpegian nabaritzen zitzaion guztiak zakarretara botako zituzkeela gustura asko. Hori bai, gonbidaturen bat genuen bakoitzean egongelara bideratzen zuen eta inork baino harroago egiten zuen sarien erakustaldia, ia-ia bereak balira bezala. Oso harro zegoen emaztearen lorpenez.

Xakeko mahai bat ere bagenuen, noski. Makina bat saio egiten zituzten aita eta ama bertan, eta ama beti menderatzen zuen. Mahai hartan ikasi nuen nik jolasean. Gustatuko litzaidake aitonak berak egindako mahai bat zela esatea, eta pieza bakoitza gerra garaian zuen labana batekin landuta zegoela esatea. Baina ez, nire etxean halakorik izan balitz, giltzapetu egingo zuket, armairutzarren batean gorde. Nik ikusi nuen bakarra etxe ondoan xentimo baten truke erositako plastikozko taula bat zen.

Behin, haur batengan ohikoa den moduan, gurasoak imitatzen hasi nintzen mahaiaren bi aldamenetan jokatuz eta fitxak inongo zentzurik gabe mugituz. Orduantxe, ama iritsi zen eta denbora batez niri begira barrez egon ondoren, albora gerturatu eta esan zidan:

— Horrela jokoak ez du zentzurik. Xakean sekretua bestearen pentsamendua irakurtzean dago, baina bi aldeetan pertsona berak pentsatzen badu, ez dago sekreturik, gure buruari ezin baitiogu sekreturik gorde.

Aurrerantzean ama xakean jokatzen irakasten hasi zitzaidan: zaldia “L” mugimendua eginez mugi daitekeela bakarrik eta horrelakoak... Nik beti fitxa zuriak aukeratzen nituen, amaren taxiaren kolorekoak. Denbora luzez aritzen ginen mahai horren bueltan, eta nik artean 8 urte bakarrik izan arren, eta jokoaren inguruan ideia zipitzik ez izan arren, amak ez zidan irabazten uzten. Aitaren aurka jokatzea errazagoa zitzaidan. Nire lehiakortasun itsua ikusita, nahiago izaten zuen galdu eta lasai gelditu. Amarekin, ordea, ez zen horrela. Galtzen nuen bakoitzean haserretu egiten nintzen eta orduan esaten zidan:

— Asko entrenatzen baduzu, iritsiko da garaituko nautzun eguna.

Hori esan bezain laster jartzen nintzen bere parean besoak gurutzatuta eta berak malezia apur batekin estalitako irribarre goxoa eskaintzen zidan.

Oso emakume goxoa zen, eta herrian begirunea zioten. Kanean ezagun guztiak agurtzen zituen adeitsu eta jende artean egoten zekien horietakoa zen. Baina argi zegoen hura ez zela berak imajinatzen zuen bizitza. Ni jaio aurretik, bere txapelketak zirela eta, taxia hartuta hamaika kilometro egiten zituzten gurasoek. Europa osoan zehar ibiltzen ziren, beharrezkoak bakarrik hartuta, ostatueta lo eginez, edo inon lekurik ez zegoenean taxian bertan. Milaka eta milaka abentura bizi izan zituzten. Ni jaiotzean, aldiz, herrira itzultzea erabaki zuten, bertan, aitona-amonen eta lehengusuen artean haztea nuela onena, eskolara joan eta lagun talde bat izatea, sustriak errotzea. Baina errutinan murgildutako bizitza hori ez zen amak amesten zuena.

11 urte zen xakeko klaseetan hasteko behar zen gutxieneko adina, eta orduan hasi nintzen amak ematen zituen klaseetara joaten. Hasieran, bera irakasle izatearen kontuak gogaitu egiten ninduen, baina pixkanaka hori abantaila bihurtu zen. Gainerakoek mugimenduak ikasten zituzten bitartean, nik pare bat jokaldi nekizkielako, etxean egiten genituen saioen ondorioz. Hura aitari irabaztea baino errazagoa bihurtu zen.

Nire lehenengo txapel garrantzitsua 13 urterekin irabazi nuen, Euskal Herriko txapelketa batean, eta xelebreena da nire aurkariak 15 urteko jokalaria zirela. Garai hartan gaztetan zuen bizipoza itzuli zen amaren altzora. Ez txapelketa ugari irabazten nituelako, tira, horrek ere alaitu zuen, noski, bera eta inguruko guztiak. Batez ere, amaren sarien ondoan, gehien miresten nuen pertsonak lortutako sarien ondoan, nireak jartzen hasi ginelako. Baina ama, batez ere, ni txapelketa batetik bestera eramateko taxia hartu beharrak alaitzen zuen. Nolabait nirekin bere ametsak betetzeko aukera ikusi zuen. Seat txurian sartuta alde batetik bestera, aita, ama eta hirurok.

Lehenengo txapelketak inguruan baziren ere, laster hasi nintzen txapelketa ospetsuetan parte hartzen, eta urrutira joan behar izaten genuen. Orduak ematen genituen taxi haren barruan eta, nola ez, askotan eskolako egunak galdu behar izaten nituen. Ez da harrigarria amak denak irrikitan sinatzen zituela aipatzea, egia esan, alde horretatik, inoiz ez nuen ohar bat faltsifikatzeko beharrik izan.

Xakean aditu bihurtzen hasi nintzela esan daiteke, autoan jokaldiak erreparatzen joaten ginen eta punta-puntako jokalaria jarraitzen hasi nintzen. Ama eta nire arteko partidak luzatzen hasi ziren, apika partida batek hilabete iraun

zezakeen eta, horrela, gogor entrenatuz, 16 urte nituenean Europako txapelketarako sailkatu nintzen. Inguruan sekulako oihartzuna izan zuen horrek, baina, antza, ez zen nahikoa izan aitari nagusiak aste baterako jai eman ziezaion. Hargatik, ama eta biok bakarrik joan ginen Europako txapelketara, amaren eta nire arteko partidari, nik zaldia g-5 puntu utzi ondoren.

Bidean amak gauza asko esan zizkidan eta xakearen inguruan zekien guztia erakutsi zidala aitortu zidan. Niri irakasteko gauza bakarra falta omen zitzaion, gidatzen irakastea. Horregatik, A-4 errepedean gindoazela Seat zuria alboko aparkalekura desbideratu zuen amak niri gidatzen erakusteko.

\*\*\*\*\*

Gaur ere aitaren kontakizuna triste hasi da. Amak eta nik izan genuen istripuan hasten baita istorioa. Taxia iraulita aurkitu omen zuten aparkalekuan. Aurkitu gintuzteneko, amaren bihotzak taupadak emateari utzia zion eta nik konortea galdua nuen.

8 hilabete igaro nituen ospitalean eta esnatu nintzenean amnesia anterogratua nuela baieztatu zuten medikuek. Amnesia honen ondorioz, ez naiz gertakari berriak gogoratzeko gai, ez naiz bi urte hauetako gertakari bakar bat gogoratzeko gai. Horregatik, goizero Europako ajedrez txapelketa abiatzeko eguna delako irudipenarekin esnatzen naiz.

Egunak horrela hastea zaila den arren, aitaren goxotasunak dena errazten du. Etxeko epelean biok batera gosaltzen dugu, bi urte hauetako bideoak eta argazkiak ikusiz,

egunaren nire zatirik gogokoena da. Edo hala izan da behintzat gaur.

Hala ere, irudi horiek ikusteaz gain, eguneroko hau idazten hastea erabaki dut, aitarekin batera bizi dudana oso polita izanagatik, aurreko egunean nire barnerako izandako pentsamenduak ezin dizkidalako kontatu berak; sentipen guztiak ez baititut azaltzen beti eta azaltzen ez dudana betirako ahaztuta gelditzen delako; sentitzen edo pentsatzen dudan hori neure-neurea baita eta hau da horiek gogoratzeke modua, nire buruarentzat sekreturik ez izateko modua.

Azken batean, horixe giten dut: nire buruari sekretuak gorde. Ama oker zegoen horretan, bakoitzak bere buruari sekreturik ezin ziola ezkutatu uste baitzuen. Xakearen bi aldamenetan pertsona bera jarrita jokatzek ez zuela zentzurik esaten zuen, misterioa bestearen pentsamenduak deszifratzean zegoela, baina oker zegoen.

Orain dela sei egun, aitaren esanen arabera, egongelako xake mahaiari begira geratu nintzen, ama eta ni Europako txapelketara joan aurretik utzi genituen leku berean zeuden fitxak. Partida jarraitzen hasi nintzen. Egun horretan amaren aldeko fitxa bat mugitzea egokitzen zen, horretaz gogoratzen nintzen, baina aurretik, txapelketetan erabiltzen genuen erloju haietako bat eroatera joan nintzen. Dendatik itzultzean, zaldi beltza d-3 posizioan jarri eta erlojua sakatu nuen.

Xakeko erlojua jokalaria bakoitzaren denbora neurtzeko erabiltzen da, baina niri beste zerbaitetarako balio izan dit egun hauetan. Egongelara sartzean instintiboki ateratzen zait mahai hari begiratzea, eta erlojuaren botoiei begiratuz



gero, badakit zein aldamenetan eseri behar dudan egun bakoitzean. Horrela joan naiz egun hauetan mugimenduak burutzen: dorre zuria e-5 puntura, errege beltza h-8ra, dorre zuria d-1era, erregina a-6ra.

Gaur partida amaitu dut, amaren alde garaitu dut peoi zuria a-4 karratuaren erdian ipiniz, desbideratu gabe, eta xakea giltzapetuta dagoen armairu ezkutu batean gorde dut.



# **Ez da posible**

Idoia Granizo Uribarrena  
Altsasu BHI  
Altsasu



Ez, ez berriro ez... Ez da posible, ezin liteke! Ai Ruper, baina zenbatetan esan behar ote diot ezetz? Ez etortzeko, ez itzultzeko, abiatu ere ez egiteko, ezetz eta ezetz. Baina zer ordu da?... joder! Goizeko zortziak. Azala behar da gero larunbat goiz batean ez si eta ez no ate-joka etortzeko. Azala, mamia eta, eta... Eta kearena egingo banu? Eta, eta kaka zaharra, hemen ez dago su-etenik.

Tok-tok, din-dan, din-dan, tok-tok. Erre egingo gaitu azkenean, gaitu, bai, txirrina eta ni. Banoa, ostia, banoa. Atzo gauean ohe gainean utzitako txabusina gorria hartu eta atea irekitzera abiatu naiz.

Ateko behatxulotik begiratu dut badaezpada, baina ez dago zalantzarik. Iker da, nor bestela? Ez da nekatuko, eh! Ez al zaio buruan sartzan parez pare bizi bagara ere, ez ditugula eguneko hogeita lau orduak elkarrekin zertan igaro? Elkarrekin ibiliak garen arren, aspaldi utzi geniola bikote izateari? Gainera, ez ginатеke, elkarren berri izan eta, hala ere, zoriontsu bizi diren bizilagun bakarrak.

Baina, bainak baina, bihotza ondo itxia dudala ziurtatu ondoren, azkenean, ireki egin diot atea:

Zer ostia nahi duzu?

Egun on, Nahikari. Ezetz asmatu. Gaur gaueko Kursaal-eko operarako bi sarrera oparitu dizkidate. Etorri nahi?

Jainko maitea! Horretarako etorri behar al zuen ordu hauetan? Okerrena da opera izugarri maite dudala eta berak ondo dakiela hori. Kabroia halakoa!

Isiltasuna da orain bion arteko zubi bakarra.

Benga, animatu, gustura egongo gara-eta – esan du azkenean berak.

Baina, joder, berarekin ez, mesedez.

Joder, Iker, baina normala iruditzen al zaizu ordu hauetan etortzea?

Bar-barkatu... pentsatzen nuen ideia ona izango zela.

Bar-bar-bar. Aspaldi itxi dituzte tabernak eta pixka batean ez dituzte irekiko. Goizeko zortziak dira, txo. Okurrentziak pentsamenduekin nahasten dituzu zuk.

Arrazoi izango duzu, barkatu. Banoa...

Izango dut eta badut. Tira, joango naiz, Iker, baina kontuz.

Banekiela nik ez zinela joan gabe geratuko! Hamarretan da, baina zer iruditzen zortzietan zure bila pasa eta elkarrekin afaltzen badugu?

Ezta pentsatu ere! Bila pasa, bila pasa... Pasatzen ari zara, Iker! – muturren aurrean itxi diot atea danbateko batez.

Eta orain zer? Ohean sartzen banaiz, ez dut atzera begirik bilduko... Ah, bai! Erosketak egin behar nituen. Oraindik goiz da, baina, tira, dutxatu, lasai-lasai gosaldu eta prestatzen naizen bitartean irekiko dituzte dendak.

Esan eta egin. Gorputzeko zoko-moko guztiak uretan beratu eta xaboi artean galdu naiz beroa epeltzen hasi den arte. Baineratik logelara artekoa pauso txikika egin eta bakero eta kamiseta fin batekin jantzi dut neure burua goi eta behe. Txukun-txukun orraztu eta mikrouhinean sartu dut katilukada bat esne. Rimela, begietako itzal beltza eta ezpainetako glosa. Egia esan, ez dut gehiegi makillatzea gustuko.

Piiiiiii! Hara, esnea deika. Armairutik galleta batzuk atera eta putzu zurian hondoratu ditut. Gauza bat gutxiago egiteko! Hortzak garbitu eta ordulariari erreparatu diot: hamarrak. Primeran! Poltsa eta etxeko giltzak hartu eta mandatuetara abiatu naiz.

Baina atea ixtear nintzela, plast: Iker.

Jesus, Maria eta Jose! Zer ari zara berriz ere hemen?

Barkatu, baina hitzordua adostu ez dugunez...

Ze ordutan da hastekoa?

Hamarretan.

Hamarretan? Bada, bederatziak eta laurdenetan hemen.

Baina larri ibiliko gara.

Horregatik.

Ez horregatik.

Eta eskaileretan behera egin dut. Momentu batean, atzera begiratzea bururatu zait, baina ez, ez, hobe ez, xuxurlatu dit Kirmenek “Zaharregia, txikiegia agian” diskotik. Arrazoi duk, Kirmen, badaezpada, hobe ez.

Tira, lehendabizi Super Amarara noa barazkiak eta arraina eroatera. Bidean noala, anaia txikiarekin egin dut topo.

Ei, Nahikari! Nora zoaz hain azkar?

Aupa, Iñaki, ez zaitut ikusi. Errekaduetara..., bada-kizu. Eta zu?

Liernirekin geratu naiz bazkaltzeko – esan dit musugorriturik.

Nire anaia beti izan da nahiko neskazalea. Baina badi-rudi Liernik txora-txora eginda daukala.

Kontuz digestioarekin, anaiatxo! – eta muxu eman diot masailean.

Super Amara. Barazkiak eta arraina hartu eta ilaran jarri naiz.

Ezta Biriatu balitz ere! Badut pixka baterako. Puf!

Ezer gutxi daramadalako baino nire purrustadak ez entzuteagatik, nahi banuen pasatzeko esan dit kutxazain ilehoriak. Nahiko ez nuen ba!



Mila esker – hortz zuriak oparitu dizkiot esker onez.

Poltsak zamatu bitartean, lepoaz haragoko lurraldeetan galdu zait burua. Zertan ari ote nintzen pentsatzen Ikerren proposamena onartu nuenean? San Antonioren abarkak! Kaka, kaka eta kaka! Eta mila aldiz kaka! Edozer gerta daiteke, edozer gertatzea nahi duelako. Berehala deituko diot, baina ez, orain ez, hobe ez. Egin ditzadan aurretik okinarekikoak.

Egun on, Nahikari!

Egun on, Irati. Betikoa, mesedez.

Oso ondo.

Baguettea eta Diario Vasco-a poltsan sartu eta ordaindu egin dizkiot.

Zer, planik bai gaurko?

Tira, – egin dut hasperen – Ikerrek Kursaalera operara gonbidatu nau.

Zer? – esan dit harriturik – harremanari berrekingo al diozue?

Ezta pentsatu ere! Gonbidapena da onartu dudana, baina oraintxe bertan deituko diot ez noala esateko.

Ezin duzu hori egin.

Nola ezetz? Hara... – eta mugikorra atera dut sakelatik.

Nahikari, zaude. Iker tipo ona da eta... – bat-batean mututu egin da Irati, bezeroak egunkariei baino gure solasari emanago zeudela jabetuta.

Tira, banoa, kontatuko dizut – erantzun diot.

Irati agurtu eta etxera bidean kantari hasi zait sake-lakoa. Iker, harritzekoa! Tira, hobe, horrela, behintzat, ez diot nik deitu beharrik izango.

Ze ostia behar duzu orain?

Ka-kaixo... e... ezer ez.

Ezer ez? Eta ezertarako hartu al duzu niri deitzeko molestia?

Zera...

Azkarragoak ikusi ditut! Baita entzun ere!

Zera, lehentxeago geratu behar genuke...

Bai, bederatzia eta hamalauan, zera! Begira, gainera, oraintxe deitu behar nizun ez noala esateko.

Nola ez zatozela?

Ez noala.

Zerbait pasa al da?

Bai, denbora. Ez dut joan nahi eta kito.

Nahikari, faborez, ez zaitez umea izan.

Umea? Ez dut zurekin operara joateko gogorik, hori da guztia.

Zin degizut ez dela ezer gertatuko.

Zin eta ezin ez dira hain ezberdin. Ez dizut berriz esango, EZ eta kito.

Bederatzietan pasako naiz zure bila.

Eze... - eta eskegi egin dit.

Eskegi, hitza ahoan utzita! Hamaika ikusteko jaiokak garela, bai, baina beste hainbeste ere ikusarazi dizkit babalare honek. Eta zer egiten da orain? Joan egin behar ote nuke? Ez dut nahi, joder. Ondo baino hobeto ezagutzen dut Iker. Ezetz, joder, ezetz!

Portalera heldu naiz. Atea ireki dut, eskailerak igo ditut eta, harrigarria dirudien arren, ez dut Iker topatu. Hori bai, ziur behatxulotik begira dagoela. Azkar batean etxera sartu naiz eta bazkaria prestatu dut.

Hiruretan amaitu dut bazkaltzen. Harrikoa egin, etxea txukundu eta luze etzan naiz sofan. Burua kuxin gainean pausatzerako hartu nau loak. Hartuko ez ninduen ba larunbat batean goizeko zortzietan esnatuta! Seiak eta laurdenetan itzartu naiz, tira, itzartu nau txirrin hots madarika-tuak. Din-dan. Ez da posible, Ruper, ezin liteke!

Hanka puntetan hurreratu naiz ate ondoraino. Iker berriro. Diooooo!

Ez noala, Iker!

Etorri, mesedez.

Baietz esaten dizudan arte ez al duzu etsiko?

Nik bezain ondo dakizu galdera horren erantzuna.

Ados, bakearen izenean. Bederatzieta hemen. Hamaretan Kursaal. Hamabietarako etxean.

Eta atzera ere, danba!, atea bortitz itxi diot muturraren aurrean.

Prestatzen hasi behar nuke, baina hau galbana! Aurpegia eta hortzak garbitu eta logelara abiatu naiz zer jantziko. Argi dago dotore atera behar nukeela, baina zenbateraino? Ez dut Ikerrek berarekin bueltatu nahi dudala pentsatzerik nahi. Lehengusinarenean jaunartzerako erosi nuen soineko hura agian? Geroztik gerrialdea zabaldu izan ez balitzait... Eta udako oporretan Portugalen erosi nuen hura? Mmmm... ez dakit ba Ikerrek niri baino soinekoari begiratuko ez ote dion. Ez, ez, hobe, ez.

Hauxe! Iñaki anaiak urtebetetze egunerako oparitu zidana estreina dezaket. Tira, tira, hau bai, hau egokia da.

Baina zer ordu da? Kaka! Bederatziak laurden gutxi! Lurrean zehar barreiatutako trapu guztiak potor-potor eginda armairuan sartu eta neure buruari azken ukituak ematen hasi natzaio. Belarritako urdinak zintzilikatu, azala arrosaz lurrindu, eta martxa.

Din-dan! Hemen da. Takoi beltzak jantzi, poltsa hartu eta atea ireki diot.

Ene, zein dotore dagoen!

Gau on, oso polita zaude.

Ez hasi, Iker.

Zu hasten ez bazara, nik hasi beharko dut ba.

Isilik ere egon gaitezke.

Tira, ba al goaz?

Beharko.

Atea itxi eta elkarrekin abiatu gara eskaileretan behera.  
Portaletik ateratzeko asmoa nuen, baina...:

Pentsatu dut agian egokiagoa litzatekeela autoz joatea  
– proposatu dit.

Pentsatu? Nahi duzun bezala, Iker – hasperen egin dut.

Autoan sartu eta bidean gara. Isilik goaz, eta deseroso,  
baina aukeran, nahiago horrela. Faborez, Kursaalera heldu  
nahi dut! Baina desioak desio eta ametsak amets... Baboa  
halakoa! Atzera hizketan hasi ez da ba!

Zera... Nahikari...

Arrankatu, gizona.

Honek ez al dirudi gure lehendabiziko zita?

Lehendabiziko zita? Zertan ikusten diozu zuk antza?

Horrelakoa izan zen: autoan gindoazen zinemara, eta...

Ixildu, mesedez! – moztu diot hitza – Honek ez dauka zer ikusirik!

Baina...

Ixiltzeko!

Hizketan jarraitu nahi zuela sumatu dut. Horregatik, irratia piztea erabaki dut, ea behingoz konturatzen den. Baina... ezin liteke: irratia piztu bezain pronto, Ruper Ordorikaren “Ez da posible” kanta aireratu da. Hara patuak ere batzuetan nolako okurrentziak dituen!

“Ez da posible, ezin liteke, ondo nao ta hau bakarrik behar nuen...”

## **Itsaso**

Inge Revuelta Bustingorri  
Ondarroa BHI  
Ondarroa





Haitzean jaiok haitzera nahi, hala dio euskal esaera zahar batek, eta halaxe nator bueltan sorterrira, azken hatsa ematen ikusi zintudan etxera, gure etxera. Ia-ia urtebete pasatu da jadanik, hainbeste oroitzapen giltzaperatzen dituen etxe honetatik ihes egin nuen egunetik hain zuzen ere. Seme-alabek txoratuta nagoela diote, eta baliteke. Badakit ez dela oso normala hirurogeita hamar urteko aitona zahar bat munduan zehar bidaiatzen ibiltzea, ohikoena ez dela behintzat argi daukat. Baina ene bihotzak zurekin besterik ez du egon nahi eta hala ere badaki ezinezkoa dela, hots, nahi eta ezinaren betiko lehia dela. Gure aitak zioen bezala, non gogoa han zangoa, eta zurekin egon ezean elkarrekin egondako lekuetara bidaiatzea erabaki nuen, bizipenak oroitzean elkarrekin egon gintezen.

Etxera sartzean ordu luzeak idazten ematen zenituen idazmahaiia izan da begiztatu dudan lehen gauza, han zegoen, guztiz hautsezaturik, gure logelako leihoaren magalean zure idazluma zaharkitua gainean zuelarik. Eskuineko tiraderatxoaz zabaltzean, zure poema eta eskutitzak beti bezala txukun-txukun ordenatuta zeuden, berrienetatik zaharrenetara, zure lurrina darien orri zurietatik paper zati

eta postal horizatuetara. Leihoak ireki eta Ondarroako kaiari begira jarri naiz, zure idazkiak irakurtzen nituen bitartean, zein ederra aspaldi ikusi gabeko Kantauri itsasoa, zein ederrak zure hitzak, zein ederra goizaldeko zeruaren argitasuna, eta zein ederrak zure idazkera dardaratiak eragindako bihurtura bakoitza. Ahantziak nituen zuk lotsaz irakurri eta nik mireshenez entzuten nituen eskuizkribuak; ahantzia, irakurtzean zure ahotsaren sakontasuna.

Ilundu du Ondarroan, denboraren nozioa galtzen ari naiz, antza denez, orduak daramatzat irakurtzen eta. Afaldu eta oheratu egingo naiz, gaurkoan ez dut diskojogailuan lehengo binilo zaharrik jarriko, dantzatzeko bikoterik gabe, ezinezkoa baitut dantzatzea. Arratsaldean Eguzkiñe, laugarren pisuko bizilagun alarguna, semeak arrantzatutako legatz handi batekin etorri da etxera, ongiertoria ematera baino gehiago, etxearen egoeraz kuxkuxean aritzera esango nuke, badakizu nolakoak diren kale honetako atsoak. Beraz, gaur seme-alabei haserre bizian janarazten zenien platera afalduko dut aspaldiko partez, Ondarroan esan ohi den bezala, legatza “pla-pla” erara, edo telebistako sasi sukaldariek diotenez, legatz arrautzeztatua. Nahiz eta kuzinatzen asko ez naizen moldatzen, mundiala zegoela iruditu zait, egia esan. Afalostean logelaren toki txikiena ere ikuskatu dut: lehenik armairuaren txukuntasunean oraindik zure lurrinaren arrosa usaina gordetzen duten arropak, honen ostean paretetan eskegitako familia osoaren argazki eta biloba txikienek margotutako marrazkiak, eta azkenik, gure zurezko ohe zaharra eta honen goialdean dagoen urre kolorezko gurutzea; egia esan, sekula santan ez dut jakin izan zergatik jarri zenuen, elizari buruz zirenak eta ez zirenak esan eta gero, ohitura-gatik izango zen beharbada.

Lehen eguzki izpiek esnatu naute gogoz kontra, beti gorroto izan ditut zure amak ezkontza-opari legez oparitutako korrantz-lanez eginiko apaingarridun gortinak. Gaua latza izan da, urte luzeotan hain gustuko izandako ohearen handitasunean eta maindire epelen artean galtzearen plazera tristura bilakatu da azken urte honetan. Eta ohean sartuaz batera lo hartzea aspaldi ahanzi dut, azken boladan loezinak jota nabil. Etxe honek oroitzapen gehiegi gordezten ditu bere baitan, eta gainera alferkeria askoren hondamendia dela diotenez, goizean kai zaratatsuan itzulinguru bat ematea izango da hoberena haize freskoaren beharrean bainago. Atondu ostean, kalera atera baino lehen, ohiko goizeko kafea hartzea erabaki dut, nola ez, esne apur bat eta bi koilarakadatxo azukrerekin.

Hozkailura hurbildu eta gure azken bidaiatik oroigarritzat ekarritako New Yorkeko askatasunaren estatuaren itxuradun imana ikustean, sabelaldean bertaratzeko bizi-tzan lehenengoz hegazkina hartu genueneko sentsazioa sentitu dut, horiek bai dardarak eta izerdi hotzak, hura bai bidaia. Seme-alabek aski zekiten New York bisitatzea desiratu izan zenuela bizitza osoan, eta batere zalantzarik egin gabe, urrezko ezteietako opari gisa erregalatzea erabaki zuten. Ingelesezt hitz egiten tutik jakin gabe, keinu bidez komunikatzen saiatzen ginela oroitzen dut, eta nola ez naiz ba gogoratuko hoteleko harreragileari dutxa matxuratuta zegoela gaztelaniaz eta txilioka azaltzen saiatu zineneko iluntze hartaz. Ni guztiz muturtuta egon nintzen bidaia osoan honengatik edo bestearengatik eta, hala ere, zuk zure irribarre lasaigarriaz erantzuten zenidan beti. Badakizu zer dioten, gogoko tokian aldaparik ez. New York ez da lehen zena zu barik, zure miresmenaren premia du.

Etxeko irrati zaharraren soinu zaratatsua lagun, kafe mingotsa amen batean edan eta portu alderantz joan naiz. Tristeia da gero bizitza osoan herri arrantzale garrantzitsua izan den hau itsasontzi gabe geratzen ikustea. Moilan aurrerantz noan heinean, haize hotza, olatuen orroak eta kresal usaina dira nagusi, askatasun sentsazioa konpai dutela. Toki hau baino bereziagorik ez dago munduan, niretzat ez behintzat; maitale gazte ginenean lehen muxua eman genuen txokoa da eta, geurea. Itsaso harroari begira denbora luzez egon ostean, larunbatero lagunekin poteoan ibiltzen naizen tabernarantz abiatu naiz. Urtebetean ez dugu elkar ikusi, eta batek daki zenbat geratzen diren, espero dut herio langabezian egon izana aspaldi honetan.

Tamalez, ez da hala izan. Hiru besterik ez gara geratzen eta, hala, musean jokatzetik ere ez dugu. Herriko koardilarik alai eta parrandazaleena izatetik aitona zahar etsi eta kexati izatera pasatu gara amen batean. Bi inozo hauek bizitzaren atzerako kontaketa seinalatzen duen ordulari irudikariari so daudela dirudi, amaiera noiz ailegatuko zain antza denez. Ni ez naiz besoak gurutzatuta geratuko penaren penaz hil arte, ez jauna.

Arratsaldean, lagunak agurtu eta Berdura Plaza azokan itzuli bat ematea erabaki dut. Aise gogoratzen dut lehenengoz ikusi zintudan eguna, ilea begizta zuri batez apaindutako adats perfektu batean bilduta, betiko lez, eta amantal zaharkitua soinean zenuelarik jo eta ke lanean ari zinen. Azokan mutil guztion arreta bereganatzen zuen barazki saltzailerik bazegoen, zeu zinen dudarik gabe. Zurekin hitz egiteko era bakarra erostea zenez, lotsaren lotsaz salgaietan begirada iltzaturik eztiki mintzatzen nintzen egunak joan eta egunak etorri. Zu, berriz, beti izan zara ausarta, eta aste batzuen buruan ardura barik fruta eta

barazki artean paper puska txiki batean idatzitako mezu bidez zinemara joatea proposatu zenidan. Nik urduritasunez ez nekiela nola erantzun gomutatzen naiz, eta beste barik buruarekin baieztatu eta arineketan ihes egin nuen pozaren pozaz. Zinemara joan ginen egun hartan hasi zen gure amodio istorioa, egun hartan hasi zen dena.

Ilundu baino lehen bueltatu naiz etxera, atzoko legatzaren soberakinak afalduko ditut, ez naiz oso gose gaurkoan. Telebistako programa aspergarriak gainbegiratu eta gauerdia heltzean itzaltzea erabaki dut. Oraingoan bai, denboraren zentzua galdu dudalakoan nago, gaurkoz nahikoa da, bihar ere eguna argituko du eta zuri azken urte honetako bizipenak kontatzen jarraituko dut zentzen naizen egunera arte, zin degizut. Oherantz noa, maitea, egun luzea izan da gaurkoa, eta bihar Arrigorri hondartzara zu bisitatzen joateko asmoa dut, itsasoan baitzaude, itsaso baitzara.



## **Iturria**

Manez Ormaetxe Paskual  
Gernika BHI  
Gernika





Segundo bakoitzeko, nire gorputzaren tenperatura goraka doa errusiar mendiko aldapa garaiena jaisten den abiaduraz. Nire berotasuna giharrak kiskaltzen hasia da, jada, aurreko asteetatik uzkuriturik eta mindurik ditudanak. Zorionez, izerdi tanta batzuek aurpegia freskatu didate, denbora labur batean plazera sorraraziz. Plazeraren igaroan lehengo berotasun nazkagarria berriz senti dezaket hanketatik bururaino, buruan gehiena sumatuz. Nire hankak aurrera azkar doaz, zein baino zein arinago eta ni neu haiei tinko eusten saiatzen naiz.

Udako egun eguzkitsu eta beroa da, herri honetako edozein ase dezakeena, baina neu ez. Bularrean zama handia daramat tristuraz beterik, goiz guztietan ohetik esnatzean birikak gogor zapaltzen eta egun osoan zehar arnasa lasai hartzen uzten ez didana. Goiz guztietan, pertsianako zuloxoetatik lehen eguzki izpiek nire aurpegiaren kontra jotzean, egun berriaren eta gertatuko den etorkizunak beraien indar guztiakin zapaltzen naute kamioi erraldoiak balira bezala.

Domeka goiza dela baliatuz, herritik kanpo lasterka egitera atera naiz, arnasa hartzeko asmoz, pentze, baso eta mendietako aire puruak nire birrikak beteko dituen itxaropenean murgildurik. Burutapen ezkorren tamaina hain da handia, non nire kaskezurrean pitzadura txiki batzuk nabari ditzakedan haizea bertatik sartu eta gehiago pentsatzera behartzen nautenak. Nire buruari egiaz galdezka ari natzaio, zer da egia? Jainkoaren ikasleek Jesusi galdera hori egitean honek hotzez beteriko isiltasun esanguratsu batekin erantzun zien. Egia zer den ez bada-kigu, nola jakingo dugu zer den gezurra? beraz, zer da bizitza? Burutazio iraunkor horietan bildurik argia dakusat, tunelaren amaierako argia, konponbide eta askatasunaren sinboloa. Baina ez autopistako tunel soil eta zatar bat, ehunka urtetako haritzez osaturiko baso eder batena baizik. Zahar hauen gerizpeek bidexka osoa eta bertatik pasa litekeen edonor iluntzen dute, norbere kolorea zeken lapurtuz eta itzalak gero eta gehiago indartuz. Errealitatearen gordintasunak beldurra sorrarazten dit gauetan loa galaraziz eta egunez begiak ixtera behartuz. Hala ere, gerizpe izugarri honen babespean betazalak igotzea erabaki dut, orainari eta etorkizunari aurre egiteko itxaropentsu. Pauso bakoi-tzean tunelaren bukaera hurbiltzen ari da, ia bertan nago.

Bihar lanera joan behar naizenez gomuta egin dut eta Juan Ignazio burura etorri zait, hotzikara ahul bat sentituz. Ezin dezaket Juan Ignazio burutik kendu, bere irudia garunean betiko marraztuta izango banu bezala da. Batabatean argi indartsu batek unibertsoaren aurrean erakutsi dit, eguzki-argia da. Zeruaren distirapenak itsu utzi nau eta bularrean zintzilik daramatzadan eguzkitako betaurrekoak jantzi ditut. Ikusmena berreskuratu dudanean, eskuin aldera so egin eta larre erraldoiak dakuskit, berde-berdeak

eta pozez beteak. Horren lekuko dira gelditu gabe egunez eta gaez kantuka ari diren txirtxirrak eta kantu eder horien lasaitasunak erakarririk belardian gelditzen diren eguzki izpiak, Amalurrarekin maitasunean. Iaz ezin izan zen horrelakorik ikusi, euri eskasiak sikatea ekarri eta bellarra gutxitu eta horitu baitzuen, leku batzuetan lurra printzaturuz. Ezker aldean sagardi eta mahasti paregabeak ageri dira, eta haien izenak ahantzirik ditudan beste zenbait fruta zuhaitz. Urrunean baserri bat ikusteak eta nire inguruak gaztetara eraman naute. Neure burua ikus dezaket, arbola artean anaiekin ezkutaketan zein baloiarekin jolasten, saltoka eta irribarretsu, pozik. San Martinetan denak batzen ginen baserrian: gurasoak, aitona-amonak, osaba-izebak eta lehengusu-lehengusinak. Goizeko lehen ordutik eguzkia estaldu arte harrapaketan zein ezkutaketan jolasten igarotzen nuen lehengusu eta anaiekin batera, hurrengo egunak heltzeko gogotsu, gure amek eta amonak prestatutako buzkantzak dilistekin batera jateko irrikan. Gora handiko oroitzapen horiek gaur egungo nire egoerarekin alderatzean eramankizuna handitu zait. Egunero lixatzen ari diren enbor bat naiz eta ekintza horren ostean neure hautsa haizeak noranahi daraman ezerez bat. Nire kanpitasuna nire pairuaren erantzule da errealitate zitalaz jabetzen naizen bakoitzean.

Hankak agudo doaz, ia neu atzean utziz, infernutik ihes egiten ariko balira bezala. Sufrikario horretan urpe-raturik, itozteko arriskuan, ohorea nirekin daramat, Jose Antonio sendagilearen esana betetzen ari bainaiz. Jose Antonio, osasun arazoren bat dudanean beragan uste osoa dudan sendagilea izateaz gain, lankidea ere bada, baina, denbora igaro ahala, bere diru-goseak nazka eta mesfidantzaz gehiago sortzen dit egunetik egunera. Jose Antonio

nekusan korridorean Eustakioekin berriketan atzo goizean, bulegoko kortina mugitu bainuen une horretan; bere traje ederra irudikatu dut, zimur bat bera ere gabe, bere txairotasunaren erakusle. Idunean daraman tximeletak sendagile traka paregabea ematen dio bere betaurreko biribilekin batera. Jose Antonioren buruaren erdialdeko ile falta bere adinaren erakusle zaio, baina, hala ere, lekaide buru hori estaltzeko kapela eder eta garestiak erabiltzen ditu. Jose Antonio hizketaldia bukatutzat emanik eta bere irribarre onena Eustakiori eskainirik, bosteko bat emanaz agurtu zuen. Korridorean aurrera zihoan eta Juan Ignazioaren bulegora sartu baino lehen berriz ere idazgelako atearen maisutasunari erreparatu zion. Ate zabal eta ederra da, prestigiodun zurginek pazientziaz eta zehaztasun handiz egina, bere botere eta harrokeriaren adierazgarri. Atea jo zuen eta Juan Ignaziok eta nik sar zedin esanik, atea ireki, sartu eta gurekin batera eseri zen. Sendagileak atea ireki zuen unean, Juan Ignaziok Manolo Escobarren binilozko diskoa ezarrita zuen musika aparailutik “Mi carro” abesti ederraren soinua ateratzen zen, langela osoa alaituz:

“Mi carro me lo robaron  
estando de romería  
Mi carro me lo robaron  
de noche cuando dormía  
¿Dónde estará mi carro?  
¿Dónde estará mi carro?”

Juan Ignazioaren bulegoa gogoko dut, ate paregabeaz gain barrura sartzean mahai dotore eta zabal bat duelako, nirea baino zertxobait handiagoa. Mahaiaren eskuinaldean nik bezala San Pankrazio Sainduaren figuratxo txikia dauka, baina, nik ez bezala, Pilarko Ama Birjinaren figura

handiago bat, zorte ona opatzeko. Lan kontuengatik urduri eta arduraturik dagoen bakoitzean, astegunetan zein domeketan, meza ostean, Pilarko Ama Birjinaren kaperan orduak ematen ditu otoitzean. Bulegora sartzean sentitzen den lehen gauza gizon usaina da: whisky, ardo eta kubatar puru bikainen usaina, hain zuzen ere.

Burrunba hots batek pentsakizun horietatik esnatu nau eta urrutira behatu dut. Bidea harri koxkorrez egina denez, urruneko inguralde paregabea oztopatzen duen hauts hodei bat dakusat eta hurbiltzen ari dela konturatu naiz. Jakin-minak erakarririk abiadura handitu dut. Bi Land Rover Santana patruila-auto handi dira, nire lankideenak. Lehen beribila hurreratzean Gerardo eta Eustakio begietsi ditut eta beraiek kopeta eskuaz ukituz agurtu naute. Bidexkaren eskuinaldetik jarraitu dut, korrika munstro erraldoi hauek zapal ez nazaten. Hurrengo autoan Rufino eta Eusebioren aurpegi benazkoak ikusi bezain laster, harridura pixka bat erakutsiz, kopeta eskuaz ukituz agurtu naute ni aintzatuz. Hauts hodei baten barruan aurrera jarraitu dut, ikuspegia garbituko den itzaropenean murgildurik.

Nire lankideen niganako eta Juan Ignaziorekiko neurrigabeko errespetua koipekeria hutsa den kezka buruko mina sortzen dit. Herriko haize bolada ahul batek bi autok utzitako hauts hodeia desagerrarazi du, inguruaz gozaten utziz. Beste burrunba hots batek, lehenagokoa baino ahulagoa, nire arreta erakarri du. Urrutian bi moto dakuskit, Ildefonso eta Fakundorenak, hain zuzen ere. Hego haizea gogor jotzen hasia da eta Ildefonso bere txapel gorria eusten saiatu da, sorbalda daraman Mauser fusila ez jausteko kontuarekin. Jantzita dituen betaurreko lodiak bere begi miopeen bederatzi dioptrien erakusle

argia dira, eta neu agurtzeak harritu egin nau, baina, hala ere, beste lankide guztiak bezala, eskuarekin kopeta ukituz, Ildefonso eta Fakundo agurtu ditut. Fakundok ez dit begietara so egin, ez motoa gidatzen dagoelako, begioke-rra delako baizik. Gerrikoan loturik daraman borrhari erreparatu diot, jaietan eta beste hainbestetan emandako astinaldien eraginez higatua; lurzorua pixka bat ukitzen ari da mugimenduaren eraginez gehiago arrazatuz, neu bezala.

Ia lankide gehienak ikustean Emilioren falta sumatu dut. Emilioren beso odoleztatua eta buru erre irudikatu ditzaket, auto azpian jarri zioten lehergailuak eztanda egin zueneko. Juan Ignaziok egun hartan bihotz-bihotzetik isuritako malkoak gogoratu ditut eta ondorengo egunetan emandako hitzaldi bihotz-altxagarriak neure barnean entzun ditzaket.

Izerdi tanta mordoa ageri dira nire aurpegi eta besoetan eta jada alkandora erdi bustirik daukat, hala ere, lasterka azkarrago egiten hasi naiz pairakuntza honi amaiera eman nahian.

Neure lankideek ea zer darabilten pentsatzeari ekin diot. Seguru aski, atxiloturen bat daramate autoaren atzealdean, bestela ez lirateke hemendik etorriko-eta. Bidegurutze txiki batera heldu naiz, orain hautatu egin behar dut, hainbeste kostatzen zaidan ekintza, hautapena. Nekatuta nagoenez, eskuineko bidea hartu dut, ezkerrean aldapa gogor bat dagoelako eta nik dakidala eskuineko-  
tik ez. Ez dut gogoratzen beste honetatik etorri naizen azken aldia, txikitan beharbada. Lankideak ikustearen sorpresa gazi gozo horren ostean neure buruan ditudan pentsamendu guztien gainetik Juan Ignazioren aurpe-

giaren irudiak hartu du nagusitasuna. Ziegen lurzoruan gorpuak dakuskit, odolez eta ubeldurez beteak, Juan Ignaziok eta Fakundok hil arte jipoituak. Juan Ignazioren irribarre zitala ikus dezaket hilotzei begira, bere sakelara eskua luzatu eta kubatar puru handi bat ahora sartuz batera sua ematen. Juan Ignaziok ondo zekien droga saltzaile eta kontrabandistei sekretuak eta gezurrezko aitortzak ateratzen, baita konfiskaturiko drogaren zati handi bat berriro saltzen ere. Iaz droga eta drogaz beterik ziruditen lastozko fardel mordoa erre genituen herriko plazan, herri-tar guztien eta baita alkatearen txalopean.

Juan Ignaziok eta nik ateratako diruak bakoitzaren soldata hirukoizten du, baina ez du nire poztasun urria igotzen. Jose Antoniok ere ondo irabazten du ziegetako hilotzen autopsia paperetan bihotzekoak emanda hil direla egiaztatuz.

Gauetan, etxean, ohean lotan nagoenean ziegako garrasiek loa eteten didate, eta Juan Ignazio hontz bihurturik, nire belarrira bere ahots gogorrez eta puru usainaz, nire izena xuxurlatzen dit:

— Luis, Luis, Luis, Luis...

Arratsaldeetan, lokartu ezinik nagoenean, gauarekiko beldurragatik, herritik buelta bat ematera ateratzen naiz eta Juan Ignazioren giza otsoak atzetik jarraitzen dit, buelta ematean, zuhaitz eta zuhaixka artean sarritan agertuz.

Ezkerraldean, hamar bat harrizko eskaileren buruan harrizko iturri eder eta zahar bat begiztatu dut, eta honen ondoan erreka bat. Egarri naiz eta gaurkoz korrika nahikoa egin dudala pentsatu baino lehen neure gorputza gelditu

egin da. Akiturik nago eta bi aldiz pentsatu gabe iturrira joan naiz. Nekatuta nago duda-dantzan ibiltzeaz eta ez dago astirik existentzia hutsalaz ezta ongiuz galdezka has-teko, ezta gogorik ere.

Ur freskoa ahoa eta barren guztia freskatzen hasia da, kanpo eta barne tenperaturaren eraginez oso bero bainago. Edaten ari naizena burdin ura dela konturatu naiz, urik hoberena, ur honek hildako bat ere berpiztu dezake. Orain lasaiago nago, gauzak argiago dauzkat eta bizitza beste modu batean ikusten hasia naiz. Eskua poltsikoan sartu eta Jose Antoniok osatu nadin egunero hartzeko emandako pilula kaxa hartu, azken aldiz begiratu eta erre kara bota dut. Pilula kaxa nire begi bistatik desagertu arte begira gел-ditu naiz.



# **Elurretan**

Irati Ramos Etxeandia  
Gernika BHI  
Gernika



Lurrean etzanda nago. Nire inguruan, bi kolore: zeruko urdin bizia eta nire azpian dudan elur mantu lodiaren zuria. Ezkerrera begiratzen dut; kilometroko luzera dutela diruditen elur muinak besterik ez. Eskuinetara, gauza berdina. Bat-batean, txorrotxio bat. Aspaldi zen bizi-seinalerik ez nuela, edo hori da behintzat nik uste dudana. Kantu alaia dela eta, irribarre erdia marraztu da elurra bera baino zuriagoa den nire azal hotzean.

Gogo ikaragarriarekin nire oroimena atzera botatzen saiatzen naizen arren, ez naiz toki honetara nola heldu naizen gogoratzeko gai. Gorputza min gutxien eragiten didan eran lurretik altxatzea erabakitzen dut, nire ikuspegi zertxobait argitzeko asmoz. Baina burua zuzen jarri, elurretan jesarri eta zutik jartzen saiatzen naizen unean, nire ezintasunaz jabetzen naiz: ezin ditut hankak mugitu. “Lasai”, -diotsat ene buruari- “erori banaiz, momentuko kolpea izango da hankak ondo mugitu ezin izatearen arrazoia. Ziur pixka bat itxaron eta berriz zutik jar naitekeela”. Behintzat, urrun-urrunean baso bat izan daitekeen orban berdea behatu dut.

Lehengo posiziora itzuliko naiz, oroitzeko beste saiakuntza bat egitekotan. Etzan eta zero urdinari begira jarri naiz. Honen alde batean agertzen hasi diren hodei txikiek artaldea dirudite ozeano urdin batean, ni bezain galduak. Baina laster artaldea erditik banatu eta ozeanoa zikinduko duen zirriborroa gero eta hurbilago dago. Hauts zurizko bidea uzten joan den heinean, hegazkin bat dut gainetik igarotzen. Nora ote doa? Norabiderik gabe, agian, ardi multzo horren pausoak jarraituz. Beharbada, munduari bira emateko asmoa du, edo ortzi mugan desagertzekoa.

Eszena erreala eta nire burukoa oso alderantzizkoak dira: ukondoak elurretan kokatu eta nire ikusmira zabal-tzen dut, basoa zirudien hori hobeto ikusteko beste. Iru-dimena martxan jarriz, ordea, hondartzako hareetan abuz-tuko eguzkiaren izpien bero eta argi goxo hura xurgatzen nagoela dirudit. Minutu batzuk basora begira egon ostean, orein pare bat ikusten ditut sasien artean. Haien atzetik, beste bi txiki. Atzetik joatea gustatuko litzaidake. Beti iru-ditu zait animalia basatiek zerbait berezia dutela, gure egu-nerokotasunetik kanpo egoteaz gain. Ezezaguntasuna izan daiteke, pizten duten jakin-mina, duten misterioa agian.

Zertan ari ote dira? Beharbada janari bila dabilta, orain dela urte pare bat biologiako klaseetan ekosiste-mak lantzen genbiltzala liburuan agertzen zen oreina bezala. Baina itxaron! Momentu bat... Desorientazioak, gehiegizko irudimenak, uneko nahasketak eta kon-zentrazio ezak nire helburua ahaztea eragin didate: hona nola heldu naizen eta hemendik nola alde egin bururatzea. Klaseez oroitzean, gau beltza iristean ekaitz bakar bateko tximistak lautadako herrixkak argitzen dituen bezala, kol-pera, nire buruan dauden ideia nahasien artean argizko bi-dea piztu da. Burura etorri zaidan lehen irudia, Aitor, Ane

eta hirurok kotxean asteleheneko azterketa komentatzen. Gertaera hau hurbileko zerbait bezala sentitzen dut, beharbada gaur gertatu da. Memoria berpizten saiatzen naiz, kotxearenaren aurretik eta ondoren egindakoa gogoratzen. Irratiko abestia, berogailuaren epeltasuna, urduritasunezko barreak... Gogoratzea lortu dudak bakarra.

Denbora aurrera joan eta askorik ez oroitzearen frustrazioak sentsazio desatseginak eragin dizkit, atsekabea, nekea. Hobe lehengo egoerara itzuli, denbora tarte batez bada ere. Galduta eta hasierako kokaleku berean egon arren, nire pentsamenduetan murgilduta arazoetatik ihes egin dezaket, momentu batez bada ez dit gaitzik egingo. Arrotza bezain ederra iruditzen zaidan leku honetan nagoela, pentsatzen hasi naiz. Orein familia hartaz, naturaz, bizitzaz.

Ez dakit zenbat denbora daramadan hemen etzanda, baina hankak ez nabaritzearen larritasunari gauaren hurbiltasuna gehitu zaio. Burmuinean etengailu bat banu bezala klik bat sentitu dut, hotza, bakardadea, beldurra, ihesi dabilzan animaliak, desagertu den hegazkina, iluntasuna, hotza, hotza. Hotz naiz, inoiz baino gehiago, ez ditut hankak nabaritzen, EZ DITUT HANKAK NABARITZEN. Hemendik alde egin behar dut, berehala. Besoak mugituz, besoak mugitzen ari naiz, atzamarrak oraindik ere eskuari lotuta ditut. Berriz ere ukondoak elurretan sartu eta nire gorputza mugitzen saiatu naiz, hozitze aldia hasiera abiatzen den hartz polarra banintz bezala. Bigarren saiakuntzari ekin, baina hankek ez didate erantzuten. Ezin dut sinetsi. Pelikuletako protagonistei gerta dakieke, telebistako albisteetan ageri diren istripuetako jendeari... Baina, niri? Ez, ezin da izan. Baina elurretan eseri eta nire izterrak kolpatzen hasi naiz. Ezer ere ez.

Nola iritsi naiz hona? Non nago? Non daude nire lagunak? Ai ama, hotza hezurretaraino sartzen ari zait, beldurrarekin batera, eta geroz eta ilunago dago, izarrak ikus ditzaket, izarrak ikus ditzaket eta ez naiz hemendik mugitzeko gai, ezin dut, ezin dut, dena ilun dago, ez dut ezer ikusten, ezin naiz mugitu, ezin naiz mugitu.

Lehen ikusi ditudan oreinak etorri zaizkit gogora, lasai-lasai basoan oinez eta korrika, familiarekin alde bate-tik bestera, etxean, epeletan. Nire ingurua argitzen ari dela ere sumatzen hasia naiz, eta oraindik ezer ikusten ez badut ere, nire ingurua ez da guztiz beltza, laranja edo arrosa antzekoa bihurtzen ari da. Pelikuletan bezala.

Epeltasun arraro bat igarri dut nire barruan, guztiz lekuz kanpokoa, baina guztiz ongi etorria. Nire gorputzaren posizioa aldatu izan balitz bezala sentitzen dut epeltasunarekin batera, eta lepoan lehenago nabaritu ez dudana mina sentitu dut. Gainera, etzanda baino eserita egongo banintz bezala sentitzen dut gorputza. Sentsazio arraro hauek eragindako urduritasunari eta lehendik neukan beldurrari beste beldur pixka bat gehitu zaie, lehen hankak sentitzen ez banituen, orain lekuz kanpo sentitzen baititut, nireak izango ez balira bezala, lurra jo gabe nonbaitetik zintzilik egongo balira bezala. 10 urte inguru nituenean aitarekin igande goizetan parkera joan eta barra horizontalean zirkuko trapezista nintzela imajinatzen nuenekoaz oroitu naiz. Desberdintasun bakarra da parkean igarotako ordu luze haiek oroitzapen onenen zakuan doazela, oraingo hau erreala ote den ere ez dakidala. Usain arrotz bat ere sumatu dut, artifiziala, hotza, baina elurrarekin eta zeruarekin zerikusirik ez duena.

Ez dakit noiz zarratu ditudan begiak, eta ikaraturik, zabaldu ditudanean, argiak itsutu nau. Eta guztiaz gogoratu

naiz: autoa, irratia, berogailua, barreak, kontrola galdu izana, ezusteko oihuak, kolpea. Eta osteko hotza eta iluntasuna, ilargirik gabeko neguko gaurik zitalena balitz bezala. Hura bai gogoratzeko hotza! Jarraian, orain artekoa gutxi balitz, mina; buruan, lepoan, bizkarrean, mina. Gorputza itsasoaren hondoan izango banu bezalako presioa sentitu nuela ere etorri zait gogora. Eta nire indar guztiekin eszena hori proiektatzen saiatu naiz, alferrik. Ikusten ditudan kolore eskasak marmokak, arrainak, itsas zaldiren bat izatea desiratuko nuke; errealitatean izan daitekeena pentsatu ere egin gabe.

Burua eztanda egiteko zorian dudanez, eskuak daramatzat begietara, oraindik elurretan etzanda nagoela sine-tsi ezinik, gezurrak begietatik aldentzeko asmoz. Nire saiakera, hala ere, bertan behera utzi behar dut, eskumako besoan igeltsua dudalako eskutik sorbaldaraino. Ospitaleko gela ikusi dut, hormetako kolore berde hil-hurrena, elurraren antz gehiegi duen oheko oihalen zuria, inguruko makinak bip eta bip, kaleko leihoaren errezelak zabalik, korridoreko leihoaren sareta jaitsita.

Asaldatuta, konturatu ere egin gabe, zutik jarri eta zuregana hurbildu naiz. Denbora honetan guztian, zure ondoan egon naiz, nire buruaz arduratuta, ametsetan, nire ongizateaz larrituta, eta denbora honetan guztian ohean etzanda egon dena zu izan zara, Aitor. Zure hankek ez dute erantzuten. Oraindik elurretan zeundela uste zenuen, zure inguruan bi kolore zeudela: zeruko urdin bizia eta zure azpian zegoen elur mantu lodiaren zuria. Errealitatera itzuli eta horrela ikusi zaitudanean, nire ardura eta larritasuna zugatikoak izatera igaro dira. Zu zinen elurretan zegoena, Aitor, eta ez ni. Ni oreina nintzen, basoan zehar korrika, Anerekin, zu mugitu ezin zinen bitartean. Badakit, pelikula bat dirudi.





## **Ezin ahaztu**

Miren Aizpuru Bilbao  
Arozena Barrueta BHI  
Bermeo



Kale haietan mila aldiz ibilia bazen ere, gaurkoan, beste behin, arrotz ikusten zituen. Hormek ito egingo zutela iruditzen zitzaion, eta, haietatik ihes egin nahian zebilela, jendea gainera zetorkiola. Galduta zegoen, baina ez zen galduta sentitzen, batez ere ez zekielako galduta zegoenik. Ozta-ozta aurkitu zuen banku bat, eta bere burua lasaitzen saiatu zen. Pixkanaka, hormek atzera egin zuten, eta jendeak aurrerantz jarraitu zuen, bera han zegoela ohartu ere egin gabe. Noizbehinka, baten batek arraro begiratzuz biratzen zuen burua beregana, baina euren begiek topo egin bezain laster aurrera jarraitzen zuten, lotsatu izan balira bezala. Halako batean, konturatu zen ezezagun haien begiradek ez zutela inolako kuriositaterik adierazten; ez, ez zioten jakin-minez begiratzen. Pena, pena islatzen zen begi haietan, tristura puntu batekin batera. Ez zen konturatzen astelehen goiz bateko hamabietan etxeko zapatila arrosak eta loredun bata luzea zeraman adineko emakume batek ikusi hutsaz “galduta” bekokian idatzita zeramanik.

Bankutik altxatu eta kalean gora segitu zuen, noranzko zehatzik ez bazuen ere. Metro batzuk egin bezain pronto, emakume gazte bat hurbildu zitzaion ezker aldetik:

— Buenos días, señora. ¿Necesita usted ayuda?

Ezustean harrapatu zuen galderak. Egia esan, galdera zenik ere ez zen konturatu, eta gazteari so geratu zen, ardi galduaren begiekin.

— Señora, ¿se encuentra bien?

— A! Eztot pentseu nigaz zagozenik. Zer esan dostazu?

— Lo siento, señora, pero no le entiendo. ¿Habla español?

— ¿Hay algún problema, señorita? — galdetu zuen han ondoan agertu berri zen poliziak.

— Creo que esta señora se ha perdido, pero no entiendo lo que me dice.

Artean, traje urdindun jendarme lerroen irudiak zebiltzan emakumearen buruan dantzan. Hauek ere aurrean zuen gizonezkoaren antzera jantzita zihoazen, eta galderak egiten zizkieten, frantsesez, ordea. Neska gaztea presaka urruntzen zen bitartean, uniformedun gizonezkoari begiratu zion berriro ere, urrunean entzuten zituen ahots haren hitzak ulertu nahian.

— Señora, ¿Cómo se llama?

Eta erantzungailu automatikoa martxan jarri izan balitz bezala, berehala erantzun zion ahots ziurrarekin:

— Sorkunde Aldeiturriaga Uribarrena.

Gizon koitadua ez zegoen seguru hura pertsona-izena edo beste munduko hizkuntzaren bat zenentz. Erantzun ulergarriagoa izan zezakeen galdera batekin saiatzea pentsatu zuen:

— ¿Y de dónde es usted?

— ¿Yo? ¿De dónde voy a ser, pues? De Ibarrangelu! —poliziaren harritu aurpegia ikusita, ez zuela ezagutuko pentsatu zuen— ¿No sabes dónde está, o qué? ¿De dónde eres?

Momentu batetik bestera denok ezagutzen dugun amona kuxkuxero horietako bat bihurtu zen apur bat lehenago galduta zirudien emakume hura.

— Yo de Buenos Aires, señora, nací justo en esa misma casa —erantzun zion atzamarrarekin kalearen beste aldean zegoen gorri koloreko etxe bat seinalatuz. Eta istant horretan, erakutsitako ziurtasun osoa desagertu egin zitzaion Sorkunderi.

Hala edo nola, poliziak izena apuntatzea lortu zuen eta helbide bat eman zioten zentralitatik. Erregistroan zioenez, Santiago Vázquez zelako batekin ezkondata zegoen, eta bost etxadi harago bizi ziren, euren alaba eta familiarekin. Etxeko zenbakira deitu zuen, baina ez zuen inork erantzuten. Poliziak, zer egin ez zekiela, emakumea etxera eramatea erabaki zuen, eta, zorte apur batekin, norbaitek irekiko zien.

Etxeko txirrinari agure batek erantzun zion, ahots dararatiaz. Eskerrak lehenengo pisuan bizi ziren, emakumearen pausoak ez baitziren batere seguruak. Poliziak gerta-

tutakoa kontatu zion agureari, eta alabarekin hitz egiteko telefonorik al zuen galdetu zion. Amaren bila etxetik irten berria zen, antza. Honi itxaroten zeuden bitartean, gizonezkoak esan zion ez zela inori ezer esan gabe etxetik irteten zuen lehen aldia. Alaba berehala heldu zen etxera, eta amaren memoria-arazoen berri eman ostean, aitak telefonoa ez hartzeagatik barkamena eskatu eta polizia agurtu zuen. Berehala amari zuzendu zitzaion, ea zer asmorekin irten zuen etxetik galdetzeko. Ez zuen harritu erantzuna Gernikako astelehenetako plazara joatekoa zela izateak, beste hainbatetan ere erantzun bera jaso baitzen. Arduraz aitari begiratu eta sofan eseri zen. Bazekien beste denboralditxo batean amari ez zitzaiola berriro holakorik egitea bururatuko, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ematen zion. Hala ere, denboralditxo hori egunetatik orduetara edo minutuetara noiz pasatuko zen beldurraz oheratzen zen askotan, amaren bila joan eta garaiz aurkituko ez zuten beldurrez.

Catalinak, alabak, behin baino gehiagotan esana zion senarrari gurasoen etxeko giltzak ezkutatu behar zituztela, atea itxitakoan amak ustekabean irten ez zezan. Azkenean eurak amarenera bizitzera joatea zela egokiena erabaki eta giltzez ahaztu ziren. Ez zen etxe handia, baina bikote biak eta Sorkunderen bi bilobak bertan bizitzeko modukoa zen. Hauetan zaharrenak 26 urte zituen, eta ez zen etxean askotan egoten. Gazteena, ordea, unibertsitateko ikasketak egiteko gogor ari zen lanean, aurreztutako diru gutxia ondo inbertitu nahi zuen eta. Etxean pasatzen zuen denbora gehienez burua liburu artean galduta bazebilen ere, Danielek amonaren historia-istorioak entzuteko gogoia ez zuen artean galdu. Zoritxarrez, aspaldian ahalegin handiak egin behar izaten zituen amonak esandakoa ulertzeko. Danielek inork baino lehenago igarri zuen amona gero eta

gehiago trabatzen zela bere kontakizunetan, eta, gainera, zentzu handirik ere ez zien aurkitzen entzundakoei askotan. Beharbada ipuinetarako zaharregia zela pentsatu zuen Danielek hasieran, baina amonaren ezkutuko irtenaldiak hasi bezain laster ulertu zuen ez zela berea arazoa, amonaren burukoa baizik.

Etxean ez zen askorik hitz egiten arazoari buruz, baina mutil azkarra zen Daniel eta bere esku zegoen guztia egiten zuen ahalik eta ondoen aprobetxatzeko elkarrekin geratzen zitzaien denbora. Institututik bueltan ondoan esertzen zitzaion, eta txikitako moduan zerbait kontatzeko eskatu ohi zion. Aukera asko zegoen berriro ere amonak Euskal Herrian bizi izandakoak kontatzeko, handik 10 urterekin alde egin beharra izan bazuen ere. Egia esan, Sorkundek ez zuen besterik kontatzen: haurtzaroko kontuak, gerra garaia, eta zorte pixka batekin Argentinan pasatako lehen urteei buruzko kontu txikiren bat. Aitona Santiago nola ezagutu zuen ere aitona berak kontatu ziolako zekien. Aitona-amonak pozik bizi baziren ere, behin baino gehiagotan iruditu zitzaion Danieli amonak beste lekuren batean zuela burua, eta gero eta argiagoa zen hori, gainerakoek ez ikusiarena egin arren.

Eskolan, Historia ikasten zebiltzala, behin baino gehiagotan aipatu zituen irakasleak XX. mende hasieran Argentinara heldutako etorkinen gorabeherak; eta honek galdetu zuenean ea zenbatak zituzten aurreko mendean heldutako arbaso europarrak, Danielek harro jaso zuen eskua, beste hainbatekin batera. Amona Sorkunde Espainiako gerra zibilak bultzatu zuela etxea uztera azaldu zuen labur, egia esan, askorik gehiago ez baitzekien. Hainbeste konturen artean zaila zen 10 urteko neskatoren baten bizipenei ia 80

urte geroago sinesgarritasun handirik topatzea, batez ere zehaztasun eza zela eta.

— Espainiarra da, orduan? — erdi baieztatu zuen irakasleak.

— Ez, bera euskalduna da —erantzun zion Danielek.

— Bueno, baina euskal herritar gehienak espainolak dira.

Danielek bazekien irakasleak arrazoa zuela, baina amonaren ahotan “espainiar” edo “Espainia” hitzak hain gutxitan entzun izanak duda sortu zion. Badaezpada, ez zion kontra egin. Etxera heldutakoan galdetuko zion amonari.

Bazkaldu ostean, egongelara joan zen. Aitona telebista ikusten ari zen, eta ondoan amona, solaskide zain. Ama ere inguruan zebilen, urduri xamar, baina Danielek ez zion galdetu nahi izan zergatiaz. Musu bana eman ostean, amonaren ondoan eseri zen, eta irribarre zabal batez agurtu zuen honek. Sorkundek ondo zekien zertara zetorren biloba, nahiz eta zenbait alditan honen izena ere gogoratu ez. Pasadizoen kontaketa erritu bilakatua zen, eta erritu guztiek bezala, honek ere oharkabean errepikatzen ziren pausoak zituen. Halako batean, amona begirada zorroztu eta buruari eraginez hasiko zen: “gure garaian ez zegoen horrelakorik...” edo “zuek ez dakizue zer zen orduan...”. Aspaldian, ordea, bilobek ez zuten amonaren kontuak entzuteko gogorik, eta amaitu baino lehen mozten zuten, gaia aldatuz edo beste aitzakiaren batekin haienera bueltatuz. Orain, Daniel baino ez zegoen entzule eta ikasgelan gertatutakoa kontatzen hasi orduko, amonak bazekien zer entzun nahi zuen bilobak.



— Gure garaian galdera desberdina zen. Abertzalea zinen ala ez galdetzen zizuten, eta erantzun orduko belau-niko bizi edo zutik hil nahi zenuen pentsatu behar zenuen. Gure aitak ez zuen galdera hori entzun ere nahi izaten, hitzez egin ordez fusil baten kanoiarekin egiten zutelako, gehienbat — isilik geratu zen, eta hasperen batez eman zion amaiera geldiuneari. Ahoa berriz zabaltzera zihoan Danielen aurpegiko espresio zalantzatiaz ohartu zenean—. Zer duzu?

Une batez Danielek begirada baztertu zuen, eta lotsatuta, amonak hain era arruntean erabilitako hitzak zer esan nahi zuen ez zekiela aitortu zuen.

— Abertzalea? — galdetu zion bilobari. Batzuetan ahaztu egiten zitzaion ez zegoela Euskal Herrian, ez zegoela euskaldunekin, ez zegoela euskaraz mintzo zirenekin, eta sarritan ez zen konturatzen honetaz ahazten zenik ere—. Aberria maite duena.

Gaztelaniaz, ordea, itsusi geratzen zen esaldia: “El que ama el aberri, la patria vasca”. Kontraesana sortzen zuten hitzek; kostatu egiten zen hori ahoskatzea. Jadanik nahiko zaila zen gaztelania hutsean aritu behar izatea, euskotartasunari buruz gaztelaniaz egin behar izateko. Are gehiago, nola azaldu zer zen abertzale izatea, hori baino ezagutu ez duen pertsona batek, beste edozein ideologia areriotzat zuen batek? Abertzaletasunaren definizioa unibertsala zen Sorkunderen ustetan, zurruna zen, aldaezina, betikoa. Definizio horrek ez zuen galderentzat zirrikiturik uzten, ezta erlatibismoarentzat ere. Hala zen, eta kitto.

Danielek ez zuen hain argi ikusten. Ez zuen batere garbi ikusten. Hitzaren etimologiari buruz gehiago jakin

izan balu, hitz honi ematen zitzaion garrantziaz jabetuko balitz, beharbada, agian, apur bat argiago ikusiko zukeen. Baina euskal gramatika eta historia Euskal Herrian bertan ere gutxi batzuen kezka baino ez zen.

Etenari garrantzia kendu nahian, amonak kontu kontari jarraitu zuen. Gerra zibilean, Frantziara nola egin zuten alde kontatu zuen, han pasatako denboran ikasitako frantses kaxkarraren adibide pare batekin giroa alaitu, eta gerraren amaieran aita abertzaleak, frankisten diktaduratik ihesi, itsasoa zeharkatzea erabaki zuen unean bizi izandako ezinegona azaldu zion. Danielek adi jarraitu zituen amonaren bidaiak, harik eta ustez Argentinara heldu zirenekoa kontatzen ari zela aipatzen zituen izen guztiak ezezagun egiten zitzaizkiola konturatu zen arte.

— Astelehenetan, Bermeoko lehengusu-lehengusinak Gernikara joaten ziren, eta han batzen ginen denok. Haien aldean umemokoak ginen gu, eta erraz-erraz konbentzitzen gintuzten haiek nahi zutena egiteko. Baina jende ona zen, jostailuak ere ekartzen zizkiguten noizean behin. Garai onak haiek...! Gero gerra etorri zen eta ez genituen gehiago ikusi.

Eta Sorkundek kontuak kontatzen jarraitu zuen, ardatz kronologikoa txikikeria balitz bezala, kontinente bien artean ur laster bat baino ez balego moduan. Danielek amore eman zuen, eta haria jarraitzea ezinezkoa zela onartuta, buruaz baiezko keinuak besterik ez zituen egin hortik aurrera. Amonari entzungor egiteak honen aurpegierari arreta osoa eskaintzea ahalbidetu zion. Begira-begira geratu zitzaion luzaroan eta, momentu batean, ez zuen aurrean zuena ezagutu. Bere amona ezezagun moduan ikusten zuen lehen aldia zen. Bizi izan zuena irudikatzen

saiatu zen: larre berdeak, mendiak, etxetxoak, eta bat-batean gorritz zikinduriko bazterrak, hilketak, gorpuak... beldurra. Begiak kliskatu zituen, eta amonari begiratu zion berriz ere, begietara, beldurra zerien begietara. Baina begirada hartan ez zuen beldurrak agintzen, beste zerbaitek menderatzen zuen, eta zerbait hori herrimina zen. Gorritz zipriztindutako larreen aurreko bizitzarena, kaosak menderatu aurretik aske zen herriarena, atzean utzitako etxearena, bere zentzu zabalenean.

Hain handia bihurtu zen sentimendu hura ulertzeko nahia, ezen hurrengo asteak eskolako ordenagailuez baliatuz Euskal Herria ezagutu nahian pasatu zituen. Aitonari galdetzen saiatu zen, baita amari ere, baina biek eman zioten antzeko erantzuna: amonak ez zituen inoiz iraganekeo kontuak kontatu bilobak jaio arte. Ezer gutxi zekiten ezkondu aurretik Argentinan igarotako urteez, baina azaleko kontuak baino ez ziren. Gainera, senitartekoak hilak ziren, edo kontaktua galdua zuten. Danielek ez zuen errenditu nahi, eta azkenean euskaraz idatzitako testuen itzulpen automatiko txarrak irakurtzea beste erremediorik ez zuen izan. Lehen aldiz, euskal musika jarri zuen, eta ulertzen ez zuen arren, tarteka ama, aita, amona, herria hitzak identifikatzea lortu zuen. Argazkiekin disfrutatzen zuen gehien. Ibarrangelukoren bat bilatzea bururatu zitzaion halako batean, eta grazia itzela egin zion ume-tatik entzundako istorio guztiak horrelako herrixka txiki batean gertatu izanak. Inguruko kostak ere liluratu egin zuen, Ogoñoko itsaslabarrek, Gaztelugatxeko harmaillek... Hainbestetan entzundako Donostia eta Bilbo zein ezberdinak ziren! Behin, Bilboren antzinako eta oraingo itxura alderatzen zituen irudi multzoa ikusi zuen, eta urteei begiratu zienean konturatu zen amonak ez zuela inoiz

ezagutu oraingo Bilbo. Egun hartan, etxera heldu bezain pronto amonari zuzendu zitzaion, ikasitakoa kontatzeko asmoz. Ez zen beranduagora arte konturatu hura ez zela egun aproposa, amonak ez baitzuen ezagutu ere egin atetik sartzean. Emozioak ez zion oztopo hori ikusten utzi, eta berdin-berdin kontatu zizkion bere aurkikuntzak. Amonak irribarre egiten zion, baina ez zuela ulertzen adierazten zuen haren aurpegiak. Danielek ez zuen gauza horrela uzteko asmorik, eta nola edo hala ordenagailu eramangarri bat lortzen saiatu zen. Azkenean, egun batez ahizparena utziko ziola agindu zion klaseko batek, eta Daniel buru belarri hasi zen amonari zer erakutsiko prestatzen. Bideo bat egitea erabaki zuen, eta Euskal Herriko argazkiak bilatu zituen, lehengoak eta oraingoak, etxean zeuden amonaren batzuk tarteko. Atzean, garaiko bertso zeritzen horietako baten bertsiõ musikaturen bat ere jarriko zuen. Oso abeslari gutxi ezagutzen zituen, denak euskal musikarien Top zerrendetatik aterata. YouTuben, euskal hitza ikusten zuen edozein bideotan ematen zuen klik. Horrela, Euskal Pizkundea aurkitu eta honen itzulpena irakurri zuenean, amonari gustatzeko moduko kantua zela pentsatu zuen.

Dena gertu zuen, eta ekitaldi bat izango balu bezala, egun osoan zehar urduritasuna joan-etorrian ibili zitzaion. Larunbata zen eta, eskerrak anaia ere etxean egongo zen! pantaila telebistari konektatzeko laguntza beharko baitzuen. Bazkalostean, denak egongelara bidali zituen, berri garrantzitsuren bat ematera zihoalako itxurak eginez. Telebistaren aurrean zutik zegoen Daniel, eta aurrean zuen egoera xelebrea iruditu zitzaion: sofan aitona-amonak eta ama, ondoko eserlekuan aita, eta lurrean anaia, denak berari begira, isilik. Hitzik esan gabe play sakatu zuen. Eta hurrengo 9 minutuetan inork ez zuen ezer esan.

Lehenengo irudiak zuri-beltzean zeuden, eta familia bateko kideenak ziren. Aurrera egin ahala, landak, jendea, herriak, etab. agertu ziren, eta gutxika-gutxika kolorea hartzen zuten irudiek. Danielek ilunpetako aurpegietara begiratu zuen, espresio gabeak ziren denak, bat izan ezik. Amona irribarrez zegoen. Irribarre lasaia zen hura, aurrean zuenaren seriotasuna ulertzen ez zuen haurarena bezalakoxea, haur inozente baten berezko irribarrea. Non zegoen jakin ez arren, edo ondokoak ezagutu ez arren, bazekien nondik zetorren, eta baita nora itzuli nahi zuen ere. Eta lehenengo aldiz, Danielek amona ulertu zuen. Ez guztiz, ez bere osotasunean, baina nahikoa zen. Momentu batez amona modu hartan poztu izanak Danielen aspaldiko irrika asebeste zuen. Berak bazekien amonak ez zuela inoiz gehiago euskal lurrik zapalduko, ez zuela Kantauri Itsasoko kresal usaina arnastuko, ez zuela berriro Ibarrangeluko baserria ikusiko, ez zuela inoiz gehiago euskaraz hitz egingo. Eta pentsamendu honek ekarri zion goibeltasunak loa kendu zion Danieli gau hartan. Ezinegona baretu nahian, egun hartarako gordetako musika piztu zuen ordenagailuan. Begiak itxi zituen, eta abestiaren lehenengo notek gelako isiltasuna hautsi zuten. Beste behin ere, ez zuen letra ulertu, baina itzulpena buruan, esaldi bakoitzaren esanahia asmatzeko ahalegina egin zuen, alferrik. Euskaraz jakin balu, beharbada, agian, letraren eta errealtatearen antzekotasunaz jabetuko zen.

*Ilargi beteko gau baten...*

*Barkatu dezatela gerra  
dena odoltzen duen gerra  
muga zeharkatu baino lehen  
ilargi beteko gau baten*

*makurtu nintzen lurra bera  
atsekabez musukatzera  
barkatu nazala gerrak*

*Ene sorterrian utzi nuen  
bizi erdia lokartua  
beste erdia hartu nuen  
ez jausteko abaildua*

*Orain Frantziako lurretan  
bihar agian urrunago  
ni ez naiz herri minez hilko  
herri minez biziraun baino*

*Ene sorlekuko lurretan  
hiru muinok mendizerra  
ta lau pinuk baso itxi bat  
bost lur sail lur gehiegizkoa  
oi ene herriko lurretan  
oh Valles!  
ene sorlekua!*

*Itxaropen bat birrindua  
oroimina infinitua  
ta herri bat hain txikia ez den  
amets bakarrean sartzen den  
ilargi beteko gau baten.*

*Deserriko kontradantza,  
Eñaut Elorrieta*

Eta konturatuko zen hura ere ilargi beteko gaua zela, ondoko gelan etzanda zegoen amona ere gerratik ihesi ibili zela, berak ere bizi erdia atzean utzi zuela. Baina abestian ez bezala, ilargi beteko gau hartan, amona herri minez hil zen.





## **PROSA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



## **Post mortem**

Peru Amorrortu Barrenetxea  
Armentia Ikastola  
Gasteiz



*Urduri dirudi, ezta? Bai noski, urduri zegok. Hi ez hintzateke egongo bere egoeran? Bai baina tira, beti izan dun temple handiko pertsona. Heriotzak temple oro ezabatzen dik.*

Mendia inspektore-ordea artega zegoen. Baina beti bezala, ez zuen artegatasun hori inguruak atzeman zezan uzten. Oso ondo ezagutzen zuen batek bakarrik jakin zezakeen Mendia inspektore-ordea urduri zegoela. Keinu ñimiñoetan besterik ezin zitekeen atzeman. Atzamarrak poltsiko barruan bueltaka. Etengabeko ezkerrera begiratze hura. Inspektoreak hasperen egin zuen. Hari-harian zegoen. Patuak botatako txanpona edozein aldetara jausi zitekeen. Aurkia. Ifrentzua. Salbazioa. Kondena.

— Mendia inspektore-orde jauna...

— Bai, Landaluze agentea?

— Lekukoa prest dago.

— Nik ez nuke hori inola ere adieraziko, Mendia jauna. —Erran zuen Agirre jaunak, bere betaurrekodun su-

dur okerra ate zuritik sarraraziz. –Andereari biziki erasan dio bere bikote txit maiteak jasandako ezbeharrak, eta...

— Isildu, Ebaristo. –eten zion, lehor, Mendia inspektore-ordeak. –Hau lehenbailehen argitu beharra dago. Ziur naiz Smith andereak ulertuko duela egoera eta prest egonen dela laguntzeko. –Mendiak lasaitua hartu zuen. “Erroi zaharra engainatu badu...” pentsatu zuen.

*Potrozorri nazkantea! Angela gaixoa. Ikusi dun, edukiko dunan inpresioarekin... Zer diok, zer inpresio eta inpresio-ondo! Honek bazekik zerbait. Bestela, ez likek horrela jokatu. Urduri zegoan, baina zerbaitek lasaitu dik. Honek gero eta usain txarragoa dik. Ez dun uste izango honetan zerikusia dutela? Ezinezkoa dun. Zer ezinezkoa, emakume sugetzar horrekin? Ixo, ez dun sugetzarra! A, ez? Eta berak ez badu zerikusirik, orduan hire apopilo gazteak egin dik dena bere kasa?*

Mendia zutik jarri eta gelan zehar ibiltzeari ekin zion. Polizia zientifikoa ez zen oraindik iritsi, eta aurre-analisi bat egiteko abagunea egokia iruditu zitzaion.

— Gorra! –hots egin zuen.

— Bai, jauna? –eman zion arrapostua Landaluze agenteak, lorategiko atearen atzetik sartuz.

— Zoaz lekukoaren bila. Ni bitartean lorratzak bilatzen saiatuko naiz.

*Ikusten, nola ez den bera? Aztarna bila zebilen. Atzemango din zer edo zer. Nahi duanean burugogorra haiz, gero! Ez al haiz konturatzen, orain bakarrik zegok!*

*Eta? Zer du txarrik horrek? Zer uste duk egingo duela froga madarikatu horiekin, aurkitzen dituenean?*

Mendia inspektore-ordeak lorategira bideratu zituen lehendabizi bere pausoak. Pare bat urrats urrundu zen egongelako argiak gau ospelean proiektatzen zuen argi-gunetik eta, linterna pizturik, ingurura begiratu zuen. Ez zegoen inolako arrastorik bertan. Arrosa gorri guztiek osorik ziraute, eta belara ongi moztuaren gainean ez zegoen oinatzten inolako arrastorik. Mendiak baiezko keinua egin zuen buruarekin. “Lan txukuna”, pentsatu zuen. Kriminala ez zen edonor. Profesionala, dudarik ez. Buelta erdi emanez, etxeko barrualdea ikustea ahalbidetzen zuten kristalei so egin zien. Balizko pistarik ez. Irribarre zantzo bat inspektore-ordearen aurpegian. Atea ikuskatu zuen hurrena. Ezer ere ez. Orria, eskutokia, markoa... dena garbi. Mendiaren aiduru onak gorpuztuz zihoazen, garaipen kutsu gero eta nabariagoko irribarrea ahoan, zabalduz zihoana. Gela barrura sartu, eta bertako apalategi modernistak behatu zituen. Liburuz beteak zeuden: entziklopediak, tomo askotakoak, pertsonaia handien biografiak, nobela merkeak... apalen betegarri lana egiten zuten idazkiak, finean. Mendiaren irribarrea sarkastiko bihurtu zen. Bere jakinduriaz larderiatsua bai, baina inoiz ez zitzaion benetako jakintsua iruditu inspektore jauna. Horra erakusgarria. Baina supituki zerbaitek inspektore-ordearen arreta bereganatu zuen.

*Zerbait aurkitu din. Ikusten dun zer den? Auskalo eta, edozer delarik ere, ez zidak ezertarako balio. Zergatik dion hori? Frogaren bat izan liteken. Gertatu dena argitzeko baliagarria. Babalastoa hi! Berak aurkitu dik. Ez zegok zer eginik. Zer esan nahi dun baina? Desagerrarazteaz arduratuko duk!*

Inspektore-ordeak begiak pausatu zituen lekuan, goiko arasaren ezker aldean, portzelanazko figura bat zegoen, margo eder baino ederrekikoa, trazu fin eta delikatuz egina. Kimonodun emakume japoniar belaunikatua. Inspektoreak bere emazteari egindako hamaika oparietako bat, bere ohiko “negozio” bidaia batetik bueltan. Baina ez zen hura Mendiaren arreta bereganatu zuena, alboan nabaritu zuen beste zerbait baizik. Argi isla batek zehar begirada batean, horrek besterik ez zion adierazten aztarna koipetsuaren presentzia, baina inspektore-ordearen bihozkada sendoa zen. Astiro, eskua patrikara bideratu eta bertatik hauts beltza gordetzen zuen plastikozko zorrotxo bat atera zuen. Grafito-hautsa. Pintzel lodi baten laguntzaz, telesail amerikarretan bezala, arasa gainean zabaldu zituen Mendiak partikula finak. Ezerezetik sortua balitz bezala, horra hor hatz marka bat. Legearen agenteak jada apur bat makoa zen sudurra okertu eta pauso luzez egongela gurutzatu zuen, pauso handi bat emanaz oztipoa saihesteko. Karrajura ematen zuen atea ondo itxi, eta egindako bidetik itzuli zen apal ondora. Mendia lorratzari begira geratu zen, pentsakor.

*Zeren zain hago? Egin ezak! Ezaba ezak, hori besterik ez duk nahi, polizia ustela! Erruak barrenak jaten zizkiok, apika. Zer diok? Ez, hau egingo duena ahogozatzen besterik ez duk ari. Zer? Bai, ezagutzen diat. Gustuko dik sentsazioa. Hori zioan. Nola zen? “Bai, gustuko dut sentipena, boterearena. Geldirik zaude, badakizu gertaera transzendente hori berehala jazoko dela, denboraren isuria aldatuko duena, etorkizuneko gertaerak ezabatu eta berri batzuk konfiguratuko dituena. Eta zuk duzu erabateko kontrola: zu zara ekintza horren agente. Zure esku dago: gauzatu ez gauzatu. Eta badakizu, egin egingo duzula, ez duzula atzera egingo, baina patuaren hariak dan-*



*tzaraztea oso zirrargarria da". Ero batek bakarrik eduki zitzakek halako botere eldarnioak.*

Eta Mendia inspektore-ordeak, poliki, barrutik neurtu ezinezko gozamina sentitzen zuela, esku koipetsu batek bertan utzitako aztarna ezabatu zuen. Astiro-astiro, metodikotasunez, lorratza ezabatzeaz atsegin hartuko balu bezala. Eta zapi belztua, lore gorriko zapi polit bat izana, eta pintzela eta poltsatxoa bere sakelan ezkutatu zirenean, ateak kirrinka egin zuen bere atzean. Landaluze agentearen begirada kanpixa Mendiarengan iltzatu zen, hitz egiteko baimena eskatuz bezala. Telefono bat zekarren eskuan.

— Bai? –galdegin zuen inspektore-ordeak.

— Jiménez komisarioa telefonoan –erantzun zuen agenteak, aparatua luzatuz.

— Zer nahi ote du zerri hantuste horrek? –esan zuen Mendiak, aparatua belarrian jarriz.

\*\*\*\*\*

Mendia inspektore-ordeak telefonoa eskegi zuenerako, Jiménez komisarioa eta Petrirena epailea iritsiak ziren krimenaren gertalekura. Egongelara igaro ziren biak, eta Mendia inspektore-ordearekin aurrez aurre horrela mintzatu zen lehena:

— Nire doluminik sakonenak zuretzat, Mendia jauna. Horren gertuko baten galerak eragin bide dizun tristura sakonak neu ere zauritzen nau –esan zuen komisarioak bere bibote beltza laztanduz.

— Hala ere, biziki zoriontzen zaitugu lortu berria duzun... kargu igoera ustekabeko honengatik –esan zuen epaileak, amultsu izan nahi zuen tonuan. Bere begi beltzek, labana hotzak balira bezala, Mendia alderik alde gurutzatu zuten, bere arimaren txoko ezkutuenak ikuskatzeko gai ziren inpresioa emanaz. Hotzikara batek inspektorearen bizkarrean gora egin zuen.

— Lekuko bat badela jakinarazi digu Landaluze agenteak –erran zuen ostera Petrirena epaileak, bere gorputz mardula gelan zehar mugiarazten zuelarik. Haiek zetzaten lekura helduta, bere betaurrekoen gainetik aztertu zituen. Segidan, bere buru soilean hazka egin zuen, bere zurduraren seinale.

— Halaxe da. Emaztea. Angela Smith anderea. –erantzun zuen Mendia inspektore izendatu berriak –Landaluze agenteari errana diot hona ekar dezan, galdekatu eta zerbait argitzeko gai ote den jakiteko.

— Nire protestarik fermuena adierazi nahi diot berorri, jauna –tartekatu zuen Agirre jaunak, Landaluze agenteari iskin eginez eta gelara sartuz –Andere gaixoa ez dago inolako itaunik erantzuteko egoeran eta...

— Ebaristo –hasi zuen arrapostua Mendiak, hortz artean marmartuz –esana dizut, Smith anderearekin hitz egin dut, eta ziur naiz ez dagoela zuk diozun bezain asal...

— Tira, tira, lasaitasuna bedi nagusi; –moztu zuen Jiménez komisarioak, berari zuzenduta baitzihoazen Agirrerren kexak –Agirre jauna, badakigu, poliziako psikologo forentsea zarenez gero, zure aburua kontuan hartzekoa dela, baina kasu hau agudo argitu behar dugu. Pentsa ho-

nen ondorioak hedabideetara salto egingo balu. Gaizpidea litzateke. Hortaz...

— Utikan!- atea danbateko batez ixteaz bat, atera zen psikologo jauna, hiraturik.

*Begira zelako eskandalua antolatzen duten! Eta dena gure hizpidera dela pentsatzea ere ... Baboa! Ez al haiz egoeraz jabetzen! Gurea garbitu besterik ez ditek nahi! Berdin ziek egia estaltzea, arazoa ere gordeko baditek! Baina maitea, poliziak ditun, nire lankide finak, argitzen saiatuko ditun. Bai zera! Egin dugunaren ostean, ez dituk etsaiak besterik. Pozik leudekek berria zabaltzeaz, mundu guztiak entzuteko moduan, horrela ez balute zikinduko hik horrenbeste maite duan poliziaren izena.*

Psikologo suminduak irteera egin ondotik, emakume eder bat sartu zen ate beretik. Pelikula erromantikoren batetik aterea zirudien: jantzi estu batek bere forma eskultorikoak nabarmentzen zituen, baina negar ugari egin izanaren itxura zuen. Errimelak erreka beldurak sortzen zituen bere masailetan zehar, eta orrazkera erabat nahastua zekarren. Begiak, gorrituak, ustez denbora luzean negar egin izanaren ondorioz. Zurbiltasun dardarati batek bere azal beltzarana tristatzen zuen. Hiru gizonak, bat-batean sortutako tentsioaren eraginpean zurrundu egin ziren. Inspektoreari bere ohiko urduritasun tikak erasan zion. Ezkerreko bekaina hautemanezinki baina etengabe uzkuratzen zuen.

— Eser zaitez, mesedez, Smith andrea.

Hau esanaz batera, Jiménez komisarioak aulki bat jarri zuen andereñoaren alboan. Smith andreak gela erdigu-

nera zuzendu zuen begirada, segidan aulkira eta azkenik tentel begiratu bat zuzendu zion komisario jaunari. Astiro eseri zen. Komisario jaunak mespretxu hasperen bat gorde zuen bere baitarako. Petrirena epailea emakumearen aurrean paratu zen, bere zozko zabalaz andereak gela erdira berriz zuzendua zuen begirada ebakiz.

— Smith anderea, galdera batzuk egin nahiko genizkizuke zure senarraren..., zera zure senarrari jazotako ezbeharrak argitze aldera —zehar begiratuak hiru gizonen artean.

— Nik... zera... —toteldu zuen Smith andreak, aurrean zituenei begirada sorgortua zuzentzeaz batera —Ni nire ohean nengoen, eta...

*Gezur galanta, azpisuge horrek dioena. Hori ez duk egia. Egia erlatiboa dun, no. Askotan esan zigutean formazioetan: biktima bakoitzak era batera bizitzen ditik esperientzia traum... Zer trauma, eta zer trauma-ondo? Errudunetako bat duk. Ez al duk entzuten bere aitormena, hori asmamena! Bost tiro izan zituan, ez hiru! Tipoaren jantzia urdina zuan, ez berdea! Eta ez zian lorategiko hesiaren gainetik salto egin! Atetik! Atetik alde egin zian. Tira, maitea, nahasmendua, tentsioak eragin nekea...*

— Hori da oroit dezakezun guztia, andereño? —galdegin zion Jiménez komisarioak, bere aitormena amaitu ostean negarrari eman zitzaion Smith andreari.

— Ba... bai —esan zuen honek zotinka.

— Gertalekuaren azterketak aztarnarik atera al du argitara, inspektore jauna?

— Ez, ez. –arrapostu zion Mendiak, begiak Angela-rengandik urrunduz –Egilea tentu handiz ibili zen bere lana ondo egiteko.

— Tira ba... guk biok ez dugu hemen besterik ezer egiteko.

— Hala da. –berretsi zuen Petrirena epaileak –Gorpua jasotzeko aginduko dut. Gabon, jaun-andreok.

— Jauna... –xuxurlatu zuen Smith andereak.

— Bai?

— Harrapatu, hori egitera ausartu den urdea.

Epailea eta komisarioa orpoz orpo atera ostean, irribarre maltzur bat ernatu zen gelan geratu ziren bizien ezpainenetan. Mendia eta Angelaren begiradak gurutzatu zirenean, azken hau altxatu eta sutzuki besarkatu zuen inspektoreak, ondoren musu luze batean murgiltzeko. Banatu ziren, begietan dirdaira. Angelak ahoa ireki zuen zerbait esateko, baina Mendiak hatza haren ezpain gurietan pausatuz isilarazi zuen. Buruaz keinu bat egin zion bere maiteari, atera hurbil zitezen. Bikoteak belarria jarri zuen atean. Egur zurian zehar epaile eta komisarioaren xuxurlak:

— Zer uste duk hik, Rodolfo?

— Ez dakit, Petrirena jauna, ez dakit.

— Horko biei susmagarri irizteko nahiko zantzu badi-tugulakoan hago?

— Ez dut uste jauna. Emakume mengel hori ez da gai krimen bat antolatzeko, are gutxiago horren argiki pentsatu eta planifikatua. Gainera...

— Gainera?

— Emakume hori benetan dago amorratuta hori egin duenaren aurka. Bere azken esaldiak argi adierazten du sentitzen duen korromioa. Edo oso aktore ona da, edo egia kontatu digu.

— Egia diok. Gainera, hik baino hobeto nork ezagutzen ditu aktoresak, ezta? Kar, kar, kar... —Petrirenak isekari.

— Jauna! Hori gazte txoriburua nintzeneko kontua da. Urteak dira Kristina ez dudala ikusi eta gainera oso erdi-purdiko aktorea zen, eta...

— Lasai, lasai, ez hadi sutu... Eta Mendia?

— Inspektorea? Ez, agerikoegia da. Ez litzateke arriskatuko bere nagusiarekin. Bestalde, ez dezagun ahaztu biktimetako bat bere emaztea dela...

— Umm... Arrazoa. Konbentzitu nauk, Rodolfo. Goazemak heriozko etxe honetatik.

Bikotea atetik urrundu zenean, garaipen irribarreak loratu ziren euren ezpainetan. Elkarri tinko begira geratu ziren. Mendia Angelaren begi berdeek txunditzen zuten. Amatista pare ziruditen, bitxi paregabea. Smith andrea erraz galtzen zen Mendiaren begi urdinetako sakoneretan. Astiro, elkar besarkatu zuten. Inspektorea bere maitearen

aldakak laztantzen hasi zen. Angelak bere jantzi urdineko botoiak askatzeari ekin zion. Smith andreak ezin izan zuen isiltasuna gehiago jasan.

— Lortu dugu, maitea! –zirrarak ahotsa itotzen zion. –Guk, biok batera, ziria sartu diegu txakur ustel horiei. Bukatu dira gau amaigabeak bi horien zinkurinak entzuten, ohean etzanda ezer egin gabe. “Badakit” esan, eta beren algarra isekariak eraman beharra. Orain gu biok bakarrik...

— O, bai, etorkizuna gurea da. Plazer bat izan da bi horiei dozena bat bala gorputzean sartzea. Bi belar txar erditik ebakiak. Begira zer nolako beldur aurpegiak... –esan zuen, gela erdiko gorpuei begiratu.

— Ixo, maitea. Ez da hildakoez mintzatzeko ordua. Izan gaitezen egozentriko. Gaur, geroa gurea da.

— Bai, gurea... –musu suhar batek moztu zituen bere hitzak.

*Urdeak! Urdeak! Urdeak ditun. Mendia, azpisugea hi. Angela, zer egin dun, urdanga horrek! Hiltzaileak! Ixo. Gurea duk errua. Esan nian ez zela ideia ona. Baina hi, andrekarria, hire menekoaren emaztearekin oheratu behar. Eta hirekin maitemindu. Ongi merezia. Baina hau ezin dun horrela geratu! Zerbait egin behar diagu! Hilda gaudek, ados, baina ez guztiz, gure arimak zerbait egin ahalko din... Ahantzi ezak. Engainatu ditiztek. Gaurkoan, gaitztoenek irabazten ditek. Ankerrenek, hobe esan. Urdeak! Infernuan ustel bitez! Bai, baina gu gorputegian ustelduko gaituk.*





# **Zoria jokoan**

Patricia Gutierrez Crespo  
San Inazio BHI  
Bilbao



Haize hotza hiri kantoiak txistuka arakatzen zituen patruila nekaezina zen, lo-ibiltaria, isiltasuneko dantzari eroa. Horma batetik bestera norabidez aldatzen zuen kolpe zakarrekin, eta jarraian lurrerantz amiltzen zen, abilezia erakustaldiak eman nahian. Baina zorua jotzeko zorian zegoen une zehatz bakoitzean bere erritmo frenetiko berreskuratzen zuen. Eliza, etxe, ukuilu, lorategi, kaleak... zeharkatzen zituen, etxarterik estuenak eta baita iheska zebilzkion katuen pasabideak ere. Enparantzako hosto arinen inguruan biribilkatuz gora eta gora egin zuen etxe bateko leihoraino, eta indarrez kolpekatu zuen; baina hiriko egurrezko leiho eta ate guztiak bezala, gogotik itxita aurkitu zuen.

Leihotik harago, hormaren alde epelean, beso artean laztanak egiten zizkion aita haur jaioberriari. Bere begi niniek tximiniaren txinpartak islatzen zituzten, baina begirada askoz harago galdua zuen. Amak sabela bi eskuez eusten zuen, arnas estuka, oraindik txikiaren bihotz taupada ahulak nabari balitu bezala. Baina bihotz bakarrak agintzen zuen emakume hartan. Ekoizten zuen pen-

tsamendu orok bihotz batek atertutako sentimenduetan zuen jatorria, eta haur inozente batenarekin antzekotasun eskasa izan zezakeen armiarma sare ezalitateko bihotz horrek... Tximista baten distirak nire pentsamenduetatik atera ninduen. Hari jarraika trumoa iritsi zen, etxekoen arreta leihoaren beste aldera erakarrit, baina ordurako jada ez nengoen han. Eta askoz urrunago nengoen etxetik atera zirenerako gau hartan.

\*\*\*

Hiria loak hartuta zegoen, eta hiritarrek izar bana omen zuten burko azpian, ilargia baitzen gau hartako lekuko bakarra; agian, etxean geratzea hobe zenaren augurio. Zeruak, ordea, bere betiko lekuan jarraitzen zuen, nork argituko zain.

Bat-batean, zaldien gurditzar batek erditik zeharkatu zuen plaza, lainoak mozten bere bide deliberatuan. Laster, hiria gero eta txikiago egin zen bere ispilu lausotuetan, errepide amaiezinean gora, mendi hegalean. Ez zuen inorekin gurutzatzerik, bakarrik baitzegoen. Tentuz zeharkatzen zuen pabimendu zakarra, gorabehera eta putzuz josia, urruma lasaiz.

Soinu hura bat-bateko arriskua iruditu omen zitzaion, ordea, haritz baten adar buruan erne, bere atsedinari geldiune bat egin zion beleak. Kezka kutsatu izan balio bezala, harizpean eserita zegoen umea urduri sentitu zen une batez. Erlojua begiratu zuen. Gurdi bat baino ez. Baina zerbait egin behar zuela gogorazi zion.

Errepidea gurutzatu eta basoan barrena hasi zen mugitzen. Laster zuhaitz altu hostotsuen itzalek estali zituzten

ilargiaren argi izpien aztarna eskasak. Gauzak honela, zaila zuen gazteak bidea zeharkatzea, lurrean baino bere oroime-  
nean markatuta zegoena. Dena dela, segurtasunez mugitzen  
zen, zuhaitz enborren artean ezker-eskuin, gorosti lehor  
handi baten parera heldu zen arte. Sekoan gelditu eta alde  
bietara begiratu zuen. Ez zegoen inor. Oin-puntetan jarri  
behar izan zuen, eskua enbor zaharraren zuloan sartzeko  
bezain altua izateko. Jauzi batez lagunduta, atzamarren  
puntekin gutun azal bati heldu zion. Barrutik eskutitza zir-  
diena atera eta segidan irakurri zuen. Bukatu bezain laster  
tolestu eta bere praka zaharren poltsikora joan zen. Haspe-  
ren batek lasaitze nabaria egin zuen bere aurpegian.

\*\*\*

Gurdia ia mendi gailurrera heltzean etxetxo argitu  
baten ondoan geratu zen. Bere tximiniari lainoarekin  
nahasten zen kea zerion. Epeltasuna transmititzen zuen,  
eskertzekoa seme jaioberriarekin gurditik jaitsi zen  
bikotearentzat. Hala ere, urduritasunak han jarraitzen  
zuen, eta atarian zain zegoen emakumearen hitzek baino  
ezin zezaketen uxatu.

— Berri onak izango ditugula espero dut -adierazi  
zuen aitak.

Zenbait urtetako atzerapenarekin, baina lortu zuten nahi  
zuten mutikoa azkenean, abizena iraunarazi eta altxatuko  
zuen, etxera onurak ekarriko zituena, lanerako indartsua  
eta zentzuduna... harrotasunez aurkeztuko zuten hirian.

— Jainkoak entzun zaitzala- ihardetsi zuen amak-  
etorkizun ona da guk bezalako familia kristau bateko se-  
meak merezi duena, gaitz nahikoa jasan dugu jada.

Lorategia zeharkatu zuten.

— Gabon, zuen zain nengoen -esan zuen atsoak atarian, urteek marrantatutako ahotsarekin- arratsaldez jaso dut baieztapena. Haurtxoa jaio da, azkenean?

— Gaur bertan, arrazoa zenuen -aitortu zuen aitak keinu kezkatuz- ahal bezain laster abisatu zaitugu.

— Puntual zaudete.

— Gaueko 9ak, zuk esan bezala.

\*\*\*

Emaztekiaren itxura kontraesankorra zen. Zaharra zen, baina bizitasuna transmititzen zuen. <<Sorgin kontuak>>, pentsatu zuen amak, auskalo! Soingainekoak kendu bitartean labur jardun zuten, etxeakoandrea arrasti aldean paseoan irtena zela eta, eguraldi latzari buruzko kezak trukatu zituen gonbidatuekin. Ondoren, gelatxo bateko mahaiaren inguruan lekua hartu zuten.

— Ondo ulertu badut, zuen semearen etorkizuna iragartzea nahi duzue.

— Kontu hauetan inguruetako sorginik adituena zarelaren entzun dugu -erantzun zuen amak- arima garbia duela ziurtatu nahi dugu.

— Leku egokian zaudete -bermatu zuen sorginak tarot kartak nahasten zituen bitartean- hitz eginiezadazue zuen semeari buruz. Lehena duzue?

- Bbai –esan zuen amak ezbaitsu.
- Gezurrak begietan ikus ditzaket.

Bere burua aipatutzat jota, amak senarra begiratu zuen zeharka.

— Alaba bat izan genuen, hura bai alferra eta gauzaeza, emakumeen lana ere gaizki egiten zuen –argitu zuen aitak, garrantzia kenduz.

— Ongi, edonola ere, mutilarengan mantendu orain arreta.

Hiru multzo egin zituen kartekin, horietako bat mahai gainean zabaldu eta kartei buelta eman zien. Umeari begiratu zion bere otzaratxoan, baina laster kendu zuen begirada, bekokia zimurtuz. Isiltasuna.

— Sufrimendua, heriotza, deabrua... sentitzen dut, ezin dut ezer onik esan sorkari honi buruz. Kartek argi uzten dute –zuzena izan zen.

Aita zuri jarri zen.

— Ezin dut sinetsi –esan zuen ahopeka- Erabakigarria da?

— Ehunka pertsona etorri zaizkit kontsultan, badakizuenez, eta inoiz ez dut iragarpen okerrik egin.

— Bai –parte hartu zuen amak- baina uler gaitzazu... konponbideren bat egon behar du.

— Argi dago umea ezbeharren iturria dela, patuak abisatzen digu. Arima iluna du. Egin dezakezen gauza bakarra harengandik aldentzea da, ondorioak jasoko ez badituzue.

Eztabaidak luze jarraitu zuen. Gurasoen jarrera ukapenezkoa bazen ere, azkenean aztiaren aholkuak jarraitzea erabaki zuten. Azken batean, seinale argiak ziren eta ezin zituzten haien biziak jokoan jarri. Baina galdera bat sortu zitzaien:

— Nola?

— Basoan utziz.

\*\*\*

Batzuetan urteak atzera joan beharra dago pertsonengan marka uzten duten gertakari horietako bat aurkitzeko. Batzuetan giltzapetuta dago beste oroitzapen askoren azpian. Beste batzuetan, aldiz, egunero azalera-tzen da hartaz ahaztea ezinezkoa dela gogorarazteko edo. Gogoan gora eta behera marearen antzera, joan eta etorrian, olatu handi bat bezala. Haren astinduen halakoa izaten da sortzen dituen buruko minen intentsitatea.

Ezin zuen gogoratu huts sentsazio hura jasan ez zuen garaia. Bere kasuan, jaio bezain laster izan zuen finkatuta zoria.

Urteek desgastatutako besaulki horretan, tximinia ke-darraren koloreaz jabetu baino lehen, gizon-emakume gazte bik mundura zekarten umetxo bat. Sorpresa handiz



eta etsipenez ikusi zuten orduan neska zela. Polita, begi distiratsuduna eta azal finekoa, baina neska.

— Elikatu behar badugu hala izango da, baina hobe izango du lehenbailehen etxeko lanetan hastea —erabaki zuen aitak hotz- ez dugu neskatan xahutzeko nahikoa diru.

Denborarekin onartu behar izan zuten haien seme kutunarentzat txukundutako logela hutsik geratuko zela momentuz. Bitartean, neska ukuilu gauetara ohitu zen, milaka ikusi zituelarik.

— Etxeko lekurik hoberena dugu guretzat! -esaten zien zaldiei. Hala ez bazen ere, ez zuen besterik.

Egunez, ortua lantzeaz, animalien kortak garbitzeaz, ur bila joateaz eta ama antzeko zereginetan laguntzeaz arduratzen zen. Baina gero eta handiagoa zen munduaz ikasteko zuen gogoia. Azokara bidaltzen zutenean pozarren jartzen zen. Etxean, haatik, oihuak bakarrik entzuten zituen. Behin marrazki bat egin zion amari. Baina ez muxurik, ezta barrerik ere; mehatxuak, mespretxuzko begiradak. Orduan hasi zen etxeko giroaz kontziente izaten.

\*\*\*

Aztiak baso sakoneraino lagundu zituen, eta besterik gabe gorosti lehor baten azpian utzi zuten umea bere otzaran. Begiak itxita, ez zuen negarrik egiten. Al-dendu zirenean, amak krisantemo horien multzo eder bat ikusi zuen. Otzara gainean uztea pentsatu zuen, baina tximiniapean zein ondo geratuko zen pentsatu zuen eta sorta bat eginez berokian gorde zuen. Ondoan, oraindik le-

hortu gabeko urrats batzuk zeuden, baina horiek ez zituen ikusi.

— Badirudi ondorengorik ez izatera destinatuta gaudela –komentatu zuen- lagundu ordez, gaitzak dakarzikigute.

— Eta deabrua etxean izan dugula pentsatzea... -esan zuen aitak, beti bezala bere emaztearekin bat eginez.

Emakumea eskerrak emanez agurtu zuten eta gurdia utzi zuten lekura bueltatu ziren, etxera joateko prest. Han geratu zen umea, oihal finezko sasiarmadura batek eman ziezaiokeen babes eskasarekin.

Hitz gutxi egon ziren bidean. Agian esnatu eta negarez zegoen umea une hartan. Agian piztiaren bat haren usaina jarraitzen ari zen. Nori axola. Azken finean, ez zen beste edozein baino preziatuagoa ume hori, txarragoa, izatez. Hala ere, gau hartakoak gauzak guztiz aldatu zituen. Horrelako pentsamenduen artean hiriaren argiak ikustatu zituzten. Kostata aurrera egiten zuten zaldiek gurdiari tiraka errepidetik irten gabe, oso ikusgaitasun urria zuten. Bat-batean, batek oztopo bat aurkitu zuen eta aurreko hankak gelditu zituen. Gurdia aurrera joan zen bortizki, iraultzeko zorian, balaztatu aurretik. Barruan, senar-emazteek jasotako bultzada handiarengatik zerbait gertatu izana igarri zuten.

Gurdiaren aurrealdera zuzendu ziren eskuzko kandlekin bidea argituz, gertatutakoa eta zaldien egoera ikusteko. Hasieran zirriborrotsu ikusi zuten, gero, aurrean zutena asimilatzeke segundo batzuk behar izan zituzten. Azkenik zur eta lur geratu ziren. Lurrean, gurdiarekin kolpekatu-rik,

12 urteko neska bat zegoen. Zurbila, begi distiratsuduna... haien alabaren berdin-berdina. Aspaldi ikusten ez zutena eta hil egin berri zutena. Halako kasualitaterik existi zitekeen? Biak aldi berean konturatu ziren, baina larritasunak hitzak osatzeko edozein ahalegin blokeatu zuen. Ezer ulertu ezinik, aitak neskaren poltsikotik erdi aterata zegoen gutun azal zimurtu bat atera zuen. Irakurri zuenean gau hartan gertatutako guztia ulertu zuen.

Maitea, dena martxan dago antolatutakoaren arabera. Gau honetan haurtxoa esku honetan geratuko da. Gorosti honen azpian utziko dut. Kontuz.

Ageda

\*\*\*

Planaren emaitzak jasotzeko ezin zen asko falta. Gauerdia pasatuta zen jadanik. Pazientzia agortzen hasia nintzenez, ostera bat egitera joan nintzen. Sasiartetik gorosti lehorraren inguruko eszenatoki osoa ikus nezakeen, ez zen ezkutaleku txarra, baina hobe zen aldentzea badaezpada ere. Laster helduko zen Ageda haurtxoa uztera guraso bi haiekin, eta haiek ikusiko banindute, pikutara guztia.

Zeruari begira nindoan, hipnotizaturik bezala. Etxea utzi nuen gaua gogorarazi zidan, 9 hilabete zirela, hain zuzen ere. 11 urterekin, etxeko giroaz zeharo jakitun nintzen, ulertu ezin nuen arren. Indar guztiak jartzen banituen ere, ezin nuen gurasoengan poz txikiena ere sortu. Baina gau hartan ezin zuten poztasuna disimulatu. Ezta nire begietan pilatzen ziren malkoei begira ere. Beste haur bat izango zutela esan zidatenean, lekuz kanpo ikusi nuen nire burua

behin betikoz. “Ezin zaitugu hemen izan”. Askapena bezala bota zituzten hitzak, inolako gupidarik gabe, ni kale gorrian utzita. Etxeko atea jo nuen behin eta berriro gau hartan, erantzunik gabe, auzokideen begiradengatik lotsatuta alde egin nuen arte.

Astiro pasatu zitzaizkidan egunak, han-hemenka. Noizean behin etxe inguruan hurbiltzeko ohitura hartu nuen, gauzak nola zihoazen ikustera. Ni ez nintzen nahi zuten alaba, argi utzi zidaten, baina denborarekin ikusi nuen haiek ez zirela nik nahi nituen gurasoak ere. Tristurak amorrua ekarri zuen, eta gero tristura berriro. Tristura halako bihotz gogor eta interesatu pareta ume gizajo baten gurasoak izango zirelako, eta haiek bezalakoa bihurtuko zen. Ezin nuen burutik kendu.

Baina pixkanaka nire bizitzak ordena berreskuratu zuen. Hasteko, hiri aldirietako errepide ondoko harizpea nire bizileku bihurtu zen, eta han ezagutu nuen Ageda, bere sorgin edabeetarako belar bila. Inork baino hobeto entzuten zekien, eta nire konpainiak atsegin ziola zioen. Horregatik ez zitzaidan asko kostatu nire bihotza andre hari zabaltzea, norbaitengan konfiantza erakustea lehen aldiz. Bere etxetik pasatzen nintzen bakoitzean tarte luzeak ematen genituen berriketan eta jana ematen zidan. Aurreko astean, niregana zuzendu zen berri batekin:

— Zure gurasoak nirera etorri dira goizean. Amak laster erdituko du semea eta nire oniritzia nahi dute, bekatu ez duela ziurtatzea edo halako zerbait.

— Askotan kontatu dizut seme horrekin daukaten irrika –erantzun nion.

— Nire sorginkeriek zerbait konpon balezakete... guraso horiek zigorrik txarrena dira.

Eta hitz horiei bueltak emanaz, nire buruko argi guztiak piztu ziren. Banuen plan bikaina. Agedari kontatu nionean, ados egon zen.

— Kontsultarako datozela baieztatzen didatenean, jakinaraziko dizut. Printzipioz asteartean izango dela uste dut. Gutun baten bidez esango dizut atzeratzen den. Asteartean arrasti aldera utziko dut gorosti lehorraren zuloan.

Nire pentsamenduetan murgilduta, jada ia ordu erdi neraman ibilian. Errepideraino heldu nintzen, eta beste aldean nuen nire haritza. Konturatu gabe, haraino bueltatu nintzen jada. Azpian esertzea pentsatu nuen, han ilargiak zuzenago jotzen zuen eta nire pentsamenduak argituko zituen. Eta orduan, bat-batean, isiltasunaren erdian zaldien hotsak entzun nituen, ordu batzuk lehenagoko urruma lasai bera, baina orain askoz ozenagoa, askoz gertuagoa. Gurdia ikusi nuenerako jada beranduegi zen.



## **Sehaska beltzean**

Naddin Hussein Hernandez  
Usabalgo Laskorain Ikastola  
Tolosa





Ez dakit nor zaren baina laztandu nazazu, beldur naiz itsasoko olatuen talketan itoko ote naizen, marrazoen ahoan desagertu edo inguruko umeen negar zotinekin gorgeratu.

Badakit zu ere beldur zarela, begi marroi horietan ikus dezaket zure barne ikara, baina ez didazu kasurik egiten, zapi berdeaz duzu estalia burua, nire panpinaren jantzia bezalaxe.

Oroitzen dut nola osabak besoetan hartu eta burnizko harresiaren gaintik pasa ninduen uneaz, aita eta anaia zirenak hil zituzten bonbaren soinuaz, amaren agur hitzak.

Zortzi urte bete berri ditut, eta momentu honetan argi dudan gauza bakarra da herria utzi dudala, banoala Europa izeneko mundura, bonba hotsik entzuten omen ez den lekura, bolbora usainetik urrun. Siriako herrixka batean jaioa naiz. Txikitan, herria polita zenean, larunbatero egoten zen bertan merkatua eta aitarekin joaten nintzen bertara, hark aud-a besazpian hartu eta musika jotzen zuen, aud-a instrumentu arabiarra da, gitarraren antzekoa.

Baina badira urteak ez garella joaten merkatura, herrian inork espero ez zuen unean bonba erraldoi bat jausten zen bat-batean, eta denborarekin eguneroko errutina bihurtu; behin, aita eta anaia harrapatu zituen eztanda madarikatu horietako batek, geroztik nazka diet bonbei, baita soldadu deitzen zaien pertsoneri. Dagoeneko herria erabat suntsitu dute, eta bertakook ez dugu nora joanik, amatxok argi azaldu zidan zer gertatzen zen, gerran geundela eta bertatik ihes egiteko billete asko behar genituela, txanpon asko lortu. Hori lortzeko familiako kide bakoitzak zuen diru guztia ekarri zuen aurreko astean egin genuen festa moduko batera, eta halaxe esan zidan amak:

-Samir, semetxo maitea, urezko izara baten gainean ibili zaitezke eztandetatik urrun, nabigatzen. Lortu dugun diruarekin Europara joan zaitezke, bertan libre egin zaitezke, nahi adina korri egin mendi berdeetan, loreak usainduz, animaliekin jolasean. Har ezazu anaiaren panpina, izan zaitez pirata indartsu.

Konturatu orduko gorroto nituen soldadu beldurgarrietatik ihesi nembilen, osabaren lepo gainean eserita, airez beteriko ontzi batera heldu arte, osaba ez zen nirekin sartu ontzian.

Ontziaren balantza bakoitzeko estutasuna senti dezaket, nahiz eta aldameneko emakume zapidunaren magalean eserita egon, urrun sentitzen dut, bi begiak indar handiz ixten ditut ur gazia begietan sartu ez dakidan, eta panpina leptik estu helduta daramat anaiak barazki papila jaten tardatzen zuen denbora hori guztia baino askoz ere gehiago, baina giroa ez da baretu, itsasoaren erdian jarraitzen dugu eserita, bidaiaren amaierarekin ametsetan, arrainen gainean flotatuz.

Ez dakit nor zaren baina hitz egin iezadazu, kontatu amatxok gauero kontatu ohi zizkidan ipuinak, jolas gaitetzen hitz jokoeekin, nik hitz bat esanez gero zuk hitz horren azken silabarekin hasten den hitz bat esan behar duzu, adibidez: sehaska, katakume, mediku, kulunkaulki... edo nahi baduzu errimen jolasean: laguna, kuttuna, maitasuna, eguna... Zuk nahi duzun bezala, baina hitz egidazu, mesedez. Ikaragarri atsegin dut berbetan aritzea, magikoa iruditzen zait bihotzetik garunera doazkidan hitzak ahotik irteten zaizkidala entzutea, ingurukoekin komunikatzeko tresnetako bat. Olatuek dakarkidaten ura begietan ez sartzeko berriz ere itxi ditut, keinu monotono ari da bihurtzen amaitzen ez den bidai honetan. Besazpiko panpinak hitz egingo balu, ahoskatuko lukeen lehen hitza zein izango ote litzatekeen pentsatu dut, agian nire izena, Samir, ala anaia nuenarena. Eta jantzita dudan txaleko laranja honek oihukatzeke aukera izango balu? Ziur naiz nazkatuta dagoela ni bezalako beste hainbeste gizakiren azalean estankaturik egoteaz, heriotzatik babestuko gaituela behin eta berriz baieztatzeaz, beti egia izango ez dela jakinda ere, nazkatuta, malkoen lekuko izateaz.

Ez dakit nor zaren baina besarka nazazu, eutsi nire izter txikiei eta lehortu iezadazu betileen artetik jaisten zaidan ur jausia zure buruko zapiaren puntaz edo behatz zimurtu horiekin. Inguratu, itxita dituzun ezpain mami-tsuak ene masail ingurura eta emadazu musu izarrak estaltzen dituen maindire hezearen azpian, musuaren goxotasunarekin izuaren erritmoa mantsotu dadin. Gogoz besarka nazazu, nik panpina babesten dudan bitartean, ez dut on-tzitik itsasora erori nahi, ez dut errauts bilakatu nahi, zortzi urteko gorpu busti bat ez dut nahi izan Mediterraneoaren besoetan. Igurtzi nire tripa puztua, eta entzun bihotzaren

taupadak, bertan daude eskolako patio orduetako lagunen garrasiak, aitak aud-arekin abesten zizkidan askatasun kantuak, anaiarekin baloiaren atzetik lokazten nituen zapatilen lokarriak, osabak etxea erratzaz garbitzen zuenean geratzen zen usaina, amaren perfumea... Faltan botatzen dut dena, beldurra izan ezik.

Olatuen talken hotsen melodiaren bolumena igo egin da, eta ez dut ikusten burua inguratzen zizun zapi berdea, nora joan zara? Non dago esku artean nuen anaiaren pampina?

Itsasoan behera hondoratzen ari naizen bitartean, zure oinak sentitu ditut eta zerbait esan nahi zenidala iruditu zait, baina ezin izan dizut entzun, ezin dut arnastu, txalekoak traizio egin dit, pirata txiki indartsua arrainen altzora doa. Zure begiak nola itxi diren ikusi dut, aitaren aud-aren askatasun abestien erritmoan, baina askatasunetik urrun, itsasoko sehaska beltzean preso, gerratik ihesi.

# **Kristal lodiaren beste aldean**

Lur Gaztelumendi Beristain  
Hurtzaro Ikastola  
Oiartzun



Izara hotzetatik altxatu naiz eta egunero bezala egutegia eskuratu eta beste egun bat ezabatu dut rotuladore gorriarekin. Hemen denborak nauka preso.

Egutegia itxi eta mahai gainean utzita aurrean dudan leiho itxi eta estutik sartzen den argitasuna harrapatu nahi izan dut segundo batez, denbora askoan nago itzalpe honetan.

Denbora harri bihurtzen da giltzapetuta zaudenean. Komunikazio falta sumatzen duzu eta egin nahi zenituzkeen gauzen zerrenda oso luzea egiten da. Askatasun beharra duzu.

Eskua ezarri zidatenetik, hau da, atxilotu nindutenetik nago preso erbestean, baina nire ametsak ez daude. Loak menderatzen naueneko ametsak libreak dira, aske nago karrketan, lagunekin, familiarekin, herritarrekin eta zurekin. Amets egiteko aske naiz.

Eskutitzen tiradera ireki eta bertatik atera ditut azken aldian jasotako urrezko hitzez sortutako eskutitzak. Hain hurbil sentiarazten nauzue! Milaka kilometro dira elkar

hastantzen gaituztenak; milaka malko irazitzen ditugunak batera; milaka, pentsamenduak.

Pareta hutsari begira jarri naiz. Pinturak gogor oratzen dio paretari desgitearen auskan, metalezko ate astunak heltzen nauen modura.

Bisitaren zain nago, zure zain. Denbora igaro da azkeneko bisita jaso nuenetik. Itxaronaldi luzeak, bisita murrizak. Denbora izterbegi bilakatu da.

Noiz etorriko zara? Bi urte hedatsuren ondoren itaun nabariena da, noiz jaugin infernu honetara, lotsa faltan ez dauden etsaiengana. Gogorra egiten da jakitea bizimodua aurrera atera behar duzula amaren falta edukita; “baina, ama, nahiz eta zu ez egon, zure presentziaren falta ez dut inondik ere, badakit-eta milaka kilometroen amaieran nire igurika egongo zarela su-leize horretan, leiho estuak sortutako argitasunetik”.

Zu zara, maitea, zu zara nire leiho estuko argitasuna, zure beharra dut gure artean sortutako bide luze eta ilunean ondo ikusteko, etxerako bidea ikasteko, zuregana iristeko.

Malko bustiz idatzitako errealitate honetan soberan daude hitzak, begirada beharra dago, berotasun premia. Eskuak elkartu eta batera gaudela oihukatu dugu, bien eskuko urduritasun izerdiak nahastu eta geroari esperantzaz zantzo egin, goian ditugula.

Eskutitzetako idatziek sorgindu naute erruz. Boligrafoz izkiriaturako elkartasun aldarrikapenak, zafraldiko ubeldurak baliogabetu dizkit. Zure hitzek aurpegi herdoil honetan



irriño bat ateratzen didate, “Ama, kristal lodiaren beste aldetik idazten dizut, hitz hauek zure eskuartera iritsiko diren esperantzaz. Denbora geldo pasatzen da egunetik egunera, eta zure irudia ikusten dut karriketako paretetan, plazan zintzilik dauden oihaletan, manifestazioetako afixetan eta etxeko argazkietan. Haizeak zure izena ekartzen du zoli nahiz isilpean, baina beti ahazten zaio izen hori duen herriko alaba ekartzea.

Gauean beti begiratzen dut aitak umetan seinالاتu zidan izarra, zure izarra, zu ere so egongo zaren igurikimena-kin. “Maren, zure amak izar hori isiotzen du gauero, ikus dezagun ohera doala lotara gutaz oldozten. Izar hori pizten du gauero bere presentziarekin lokartu gaitzen, eta datorren egunsentian argi hori amatatuko du iratzartzeko ordua dela adierazteko, beste egun bat dela eta gurekin amestu duela esateko. Orduan, Maren, ez laga inoiz izar hori begiratzeari, eta gomutatu amaren izarra dela, amak guretzat isiotzen duen izarra dela”.

“Eta beste behin ere, eskutitz hau igortzen dizut, zutaz oroitzen garela esanez. Zure presentzia ez dugulako galdu, zure maitasuna urrunetik iristen zaigulako eta guk ere igortzen dizugula jakinarazteko. Zure berotasun falta dugula, zure irribarre, malko, nahiz intziriak jaso nahi ditugu. Zure eskutitz igorri ezinen moduan.

Eskutitz hau onartuko ote duten itauntzen diot neure buruari. Eta irakurtzen ari bazara, irriño bat aterako dizudala bisai eder horretan. Esperantza daukat eskutitz hau irakurtzeari uzten diozunean, zeureari sendo oratzen jarraituko duzula eta leihotik sartzen zaizun argitasuna aprobe-txatzen. Mila kilometrotara dauden herrikide, lagunak

nahiz familia gomutatuz, zure ondoan gaudela, zuregatik auskan jarraitzen dugula ohartuz eta zure zain gaudela baieztatuz.

Hainbeste dira esan beharreko gauzak, paper zati honetan laburturik sartzea derrigortuta nagoela. Eta azken lerro hauek izkiriartzen dizkizut itxaropentsu, aurki egongo baikara, askatasunean.”

Barroteak trenkatuko nituzke zure alboan egoteko, arraitasuna elkar banatzeko, gogor besarkatuz. Barruan dudan amorru guztia iraitziko dut, horma hutsari oihu egin, zintzurra bertan utziz. Zure presentzia faltan botatzen jarraituko dut, leiho estutik begiratzen, denboran galduko naiz, izara hotzetan pulunpatuz, egunak zenbatuko ditut eta zure mezuak irakurri. Ba al dut beste aukerarik?

Hemen dena antzera doa. Izarek hotzak izaten jarraitzen dute, egunak gorritz ezabatzen doaz, hormako pintura hormara ezin eratxiki dabil, metalezko ateen kanpoko soinu arrotzak estaltzen dituzte. Eta nik, gauero gure izarra isiotzen dut urrunean, zuengan pentsatzen oheratzen naizelako. Ametsetan zuekin aske izateko.

Beraz, alaba, ailegatuko ez zaizun eskutitz hau igortzen dizut nire erraietako saminez, urrutitik izkiriartutako idatziak haizearen bidez, zuregana gerturatuko diren esperantzaz. Ez galdu igurikimena, gogoan eduki nazazu, ez ahantzi nire izena, auskan egin niregatik; herriarengatik, elkartasunarengatik, eta gomutatu hemen edukiko nauzula, kristal lodiaren beste aldean.

# **Larunbatak**

Miren Etxebarria Martinez  
Lekeitio BHI  
Lekeitio



Bekozkodun, goibel, ezkutatuta bizi naiz. 6 hil daramatzat. 4 horma. Grisak, hezetasunez josiak. Angelu guztiak neurtuta. Ez dago ihes egiteko aukerarik. Bai, bakarra. Hori irakurri nuen 2010ean argitaratu zen liburu hartan. Nola lortuko dudan? Ez dakit. Ezinezkoa da, baina ezinezkoa bada, badago lortzea. Beraz, saia gaitzen.

Ring-ring, goiz-goiz, azkar-azkar iritsi naiz ametsen mundutik errealitatera. Gogo handirik ez daukat. Zero absolutu, egia esan. Maskara berri batekin irten naiz. Eskolara, gelara. 2 pauso eta erdira dudan putzu horretan ikusi dut neure burua. Aurpegian fijatu. Begi-zulo sakonak. Ezpain alboetako laranja-zuku arrastoak mingainarekin kendu, begi-mokoak atzamarrekin. Bai, egia da. Aurpegia garbitzea ahaztu zait. Momentuan hasi dira burlak, niregan ez dute eraginik. Ezin dute beste ezer egin. Nire barrua, basamortu bat da. Basamortu lehorra. Eguneroko maskara, zulo sakon bat, besterik ez. Ximel, hunkituta. Aurrekoa irakurri dut duela 2 urteko egunerokoan.

Bazkalordua da. Egunerokoa, eskaileretatik jaitsi da, janaria baxatu dit. Ez dago inolako bariazorik, lekak eta

arrain puska bat. Azken arrain zatia irentsi dut. Ahotik hestegorrira, bertatik urdailera. Badirudi “okerreko” zulo-tik joan zaidala. Bihotza bum-bum, gero eta azkarrago. Estutasuna. Amatxori berdina pasatu baitzaitzaion. Nire kasua ez da ezer larria izan, amarena bai. Bertatik ezin izan zen irten eta. Gaur ere, beti bezala, zutaz oroitzen naiz, ama, nahiz eta etxe beheko solairuan giltzapeturik egon.

Iluntzea. Nire momentua. Nire irudimenezko mundura eskapatu. Nire gauzeekin pentsatzen hasi, artilezko galterdiek oinak berotzen dizkidaten momentuan. Ez dakit nola iritsi naizen zulo sakon honetara. Agian, azken lau urteetako asteazken guztietan jasotako jipoi guztietatik. Edo eskolan izandako arazo denetatik. Ez dakit. Ez dakit ezer. Ezerk ez du garrantzirik niretzat. Bakarrik nago, ez daukat ezer egiteko. Mundu krudel honetatik aldenduta. Hobeto. Lur Planetak eman ahal zizkidan gauza txar guztiak eman dizkit jada. Ez dut gehiago probatu nahi. Ez dut gehiago dastatu nahi, zapore gabeko edari horretatik. Beteta nago. Nazkatuta.

Beste egun eguzkitsu bat da. Ez nago ziur, nire irudimenaren pentsamendu ziztrin bat izan daiteke. Bi gortinen artetik sartzen diren eguzki izpi txikiei begira nago. Liluraturata, ahoa zabal-zabalik eta adurrak tantaka. Egun goibel guztietako alaiena izango dela uste dut. Ostirala da. 3 liburu berri ekarriko dizkit, beti bezala nobela beltza. Ezin dut besterik irakurri, ez daukat aukerarik. Gaur ez dago jatordurik. Irudikapenarekin jolastu beharko dut.

Erlojua gelditu nahi dut. Ezinezkoa. Abesten eta dantzan jarraitzen du. Tik-tak, ezker-ezker. Gaua, edo gauerdia. Erlojurik ere ez daukat. Denbora imajinatu, irudimenari lekua utzi beharra. Egutegia badaukat. Bihar zapatua

dela dio. Ez zait ahaztu. Buruan daukat, etengabe. Bortxaketa eguna, larunbata. Tristeia baina egia. Aurpegiko umeldurak joan dira, beste batzuen esperoan daude. Ez dute asko itxaron beharko. Bihar bertan, bai.

Egun on, Kattalin. Lasai egon, guzti-guztia gainditu duzu, egin ezazu irribarre, hortz txuri guztiak erakutsiz. Gogorra zara, benetan indartsua. Nirekin hitz egitea gustatzen zait, ni naizelako nire lagun bakarra, beti lagunduko didan bakarra. Atzo gertatutako guztiarekin oroitzen naiz, sabaiko aramu-sareei behatzen dieten aldi berean. Mairidirea altxatzen dut, eskumutur meheekin. Ene bada! Pijama apurtuta daukat! Memoria egiten hasi eta atzoko une zehatz guztiak gogora etortzen zaizkit. Badakit, gerritik kolpe eta muturrekoak eman bitartean, pijama irmo heldu zidanekoa izan daiteke. Begiak itxi, ez dut gehiago jakin nahi. Ez daukat jakin-minik. Zero. Begiak itxi eta liburu anker honetako beste orri hautsi bat pasatzeko ordua da.

Badator. Malko-guruinetik ur tanta bat. Aldapan behera, masailetan aztarnak utziz. Indarrez, amorruz betea, inoiz ere ez amore emateko indarrekin. Malko horretan dator

nire bizitzak narratzen duen istorioa. Tristeia, pixka bat. Egun batean hemendik irteteko itxaropenaz. Esperantza. Berdea. Kartzela txiki honetan negarrak eta gauza negatibo guztiak uzteko indarraz dator.

18:00ak izango direla suposatzen dut. Tripak kexaka hasi baitira. Gosea. 8 pauso entzun, badatorrela badakit, txarolezko zapatek egiten dituzten soinuengatik. Kaixo, laztana, hemen daukazu zure merienda, esan zidan berak. Harritzekoa. Larunbatean nire gorputzeko ubeldurak era-

gin eta gaur kaixo laztana batekin dator? Ez dut ulertzen, EZ DUT ULERTZEN! Agian ni naiz, edo neure burua, ez dituen gauza arraro hauek antzematen, edo agian bera da. Drogen errua izan daiteke? litekeena da, satora datorren bakoitzean usain arraroak uzten baititu.

Irudika ezina nola alda daitezkeen pertsonak urte batetik bestera. Ama zerura joan zen egunetik filmetako printzesa baten legez sentitu naiz. Aitatxok, bai, aitatxok horrela zaindu bainau. Gaur egun, ez da aitatxo. Aita ere ez. Txerren itxurako norbaiten izena jarriko nion. Odol berekoak, baina arima desberdinekoak. Nire gorroto guztiarekin maite dut. Maite bai, baina nigandik urrun egongo balitz. Min honekin guztiarekin bukatu nahi dut behingoz. Guztiarekin amaitu.

Larunbata ere aurrera. Gaizkina ez bueltatzeko otoitz egiten. Alferrik, heldu da jadanik. Atetik sartu, kolpe handi batekin itxi du. Alde batetik bestera doa, bere gorputza kontrolatu ezinik. Aurpegian fijatu naiz. Mingaina kanpoan eta begiak gurutzatuta. Alkoholaren eragina. Ideia bat piztu da nire buruan. Aprobetxatu beharko, diotenez, bizitzako trena geltokitik behin baino ez baita pasatzen.

Irakur-txokotik altxatu, esku artean libururik potoloena hartuz. Sudurreko dindirria kendu, barrurantz zintz eginez. Joan zen eguneko lekek eman zidaten indar guztia aprobetxatuz, liburua hartu eta bere satan aurpegian kolpe gogor bat eman diot. Berak emandako guztiak erantzunez. Gustura gelditu naiz, bai. Lurrean etzanda dagoela, atean utzi zituen giltzak hartu, neuzkan zapatila bakarrak jantzi eta bera giltzapetu nuen. Zigor handiago bat merezi du, baina momentuko ideia izan zen.



8 eskailera famatuak igo. Bitartean, plana prestatzen. Ezkutuko lekuan, garunean. Ez dakit zer egingo dudan. Badakit gogorra izango dela. Jipoi eta bortxaketa guztien ondoren, errebantxa plater hotzean eskainiko diot. Zail izango du honetatik irteteko.



# **Behingoz**

Nerea Mendiburu Bravo  
Hurtzaro Ikastola  
Oiartzun



Gaur ere entzun ditut. Barreak dira. Lau urte igaro dira hasi zirenetik eta oraindik ez dira aspertu. Klasera sartzen naizen unetik, ferriako pailazo bihurtzen naute eta honez-kero ez dut gogoratzen zergatik. Txirrinak jo du. Soinu hori beste ezer baino gehiago maite dut azkenaldian. Lasterketa bat balitz bezala, gauzak jaso eta banoa.

Etxera iritsi eta ama telefonoz ari dela ikusi dut. Badakit aita dela beste aldean dagoena, amak ez dirudielako oso pozik. Aspaldian ez dut ikusi aita eta ez dit inork esaten zergatik. Nire gelara joan eta atea itxi dut. Bitxia da, txikia nintzenean beldurra nion bakardadeari, eta orain nire lagunik onena bilakatu da. v

Telefonoa eskegi duenean amaren pausoak entzun ditut nire gelara hurbiltzen. “Tok, tok; sartu naiteke?” Ez diot erantzun, banekien berdin-berdin sartuko zela. Berrogeita hamar milagarren aldiz galdetu dit zergatik ez dudan etxetik irten nahi, joateko lagunekin nonbaitera.

Afaltzeko ordua da, baina ez naiz gose eta ez dut gelatik irten nahi. Kostata, lo hartu dut.

Esnatu naiz jada. Ez dut eskolara joateko gogorik, ez dut inorekin borrokatu nahi eta, ikastera noa. Baina ezinezkoa iruditzen zait.

Irakaslea azken azterketaren emaitzak banatzen ari da eta, nola ez, gainditu gabea berriz ere. Beste ikasleak, hori jakin dutenean, hasi dira beti bezala. Ohitu naiz dagoeneko, baina oraindik ere mintzen naute. Jolas orduan nigana hurbildu dira eta nire aitari buruz gaizki hitz egingiten hasi dira. “Zure erruz joan da etxetik!” edo “ez zaitu maite! Zu bere semea izateaz lotsatzen da!” izan dira gehien erabili dituzten esaldiak.

Etxera bidean oinez noa eta atzetik datozela entzun dezaket. Beldur naiz. Azkarrago ibiltzen saiatu naiz, baina ez du ezertarako balio. Denen artean inguratu naute, kasurik egin gabe, etxerako bideari ekin diot berriz. Halako batean, zango traba jarri didate eta lurrera erori naiz. Altxatzen saiatu naizenean, berriz lurrera bota naute. Erreakzionatzeko denbora izan gabe ukabilkada bat eman didate eta korrika joan dira; begia more-morea utzi didate.

Etxera sartu eta laster batean nire gelara igo naiz. Ez dut nahi nire amak horrela ikusterik, galdera gehiegi egingiten ditu eta.

Berriz dator nire gelara. Eskuan gutun bat du eta mailkoak darizkio begietatik. Argi dago ez direla berri onak.

— Leondre, kuttuna, badakit ez zaudela oso ongi eta bakarrik egon nahi duzula, baina hitz egin behar dugu. Eskolan zinen bitartean, gutun hau iritsi da bankutik eta etxetik joan behar dugula dio. Zure aita ez dagoenetik, dirua lortzea ez da lehen bezain erraza eta ezin dut etxe hau

ordaintzen jarraitu. Dagoeneko ikusi dut beste bat. Txikiagoa da eta beste herri batean dago. Baina ez dago beste aukera hoberik. Bihar goizean eskolara joan eta agurtu beste ikasleak, itzulitakoan zure gauzak kaxetan sartu beharko dituzu.

Isilik geratu naiz. Hala ere, badakit amak ez zuela erantzunik espero. Besarkatu egin nau. Nik ere bera besarkatu dut gogoz, nire beldurrak besarkada horrekin joango balira bezala. Dena ongi irtengo dela esan ondoren, gelatik irten da. Lo hartu baino lehen pentsatzen egon naiz. Dena aldatuko da orain, zeinen ongi. Baina okerrera izaten bada? Ikastola berrian ere berdina egiten badidate?

Egunak argitu du. Etxe honetan azkenekoz jantzi eta gosaldu ondoren, amari muxu eman eta eskolara abiatu naiz. Bidea lasaia izan da, baina ni ez nengoen lasai. Klasesera sartu orduko irakasleak deitu nau.

— Leondre, zure amak deitu du esanez eskolan azken eguna duzula gaur. Egia al da? A ze tristura! Lehenago ohartarazi izanez gero, festa txiki bat egingo genizun agurtzeko.

Badakit esan duen hitz bakoitza gezurra dela, beraz, erantzun gabe nire tokian eseri naiz. Azkenekoz.

Papertxo bat iritsi zait. “Behartsu hutsa zara! Zure amak kalean eskale moduan egon behar du” zioen. Denak barrez hasi dira. Txirrinak jo du behingoz.

Etxera iritsi naizenean, nire gela kaxaz beteta ikusi dut. Bertan nire gauzak sartu ditut. Ez naiz asko luzatu, izan ere, ez dut gauza gehiegi.

— Kamioia hemen da! –esan du amak eta kaxa guztiak sartu ondoren, etxe berrira abiatu gara.

Espero nuena baino handiagoa da. Amari kaxak husten lagundu diot eta biok etxeari begira geldirik geratu gara. Isiluneak ez du asko iraun.

— Ama, gauzak hobera bakarrik joan daitezke orain, ikusiko duzu. Biok bakarrik gaude, baina moldatuko gara eta lehen bezala lagunduko dizut.

Ama niri begira geratu da une batez. Begiak zabal-zabalik ditu.

— Ez dakit zer esan, Leondre. Arrazoi guztia duzu.

— Ez esan ezer.

Afalorduan hitz eta pitz ibili gara ama eta biok. Aspal-diko partez irribarretsu ikusten dut eta horrek ni pozten nau.

Egunsentiak argitu du jada eta amak autobus geltokira laguntzen nau eskola berrira joateko. Beldur naiz. Hor dator eskolako autobusa. Ausardiaz beterik sartu naiz. Gidariak irribarre bat oparitu dit.

— Egun on eta ongi etorri, Leondre! –Agurra itzuli eta pasilloan aurrera egin dut. Hutsik geratzen zen tokietako batean jesarri naiz. Segituan hurbildu dira nigana bi gazte. “Berriz ez”, pentsatu dut nire kolkorako–.

— Kaixo! Ni Adam naiz eta berak Elliot izena du. Nola da zure izena?



— Ni... zera... Leondre naiz.

— Ongi etorri, Leondre! Lasai, ez lotsatu –esan dit Elliotek bere ile horiko xerlo bat aurpegitik baztertzen zuen bitartean.

— Zure lehen eguna denez, gurekin etor zaitezke eskola ezagutzeko. –Proposatu du Adamek.

— Ongi da –esan dut. Agian egia da dena aldatuko dela.

Bazkalorduan berriz ere biak nigana etorri dira eta be-  
raiekin esertzeko esan didate. Beraien beste lagunak aur-  
keztu dizkidate eta segituan barrezka ginen denok.

Etxerako bidea motza iruditu zait, lehengokoa baino  
luzeagoa den arren. Iritsi naizenean amak galdetu dit ea  
zer moduz eskolan.

— Ama, izugarria izan da! Eskola maite dut, benetan.

— Pozten naiz, laztana.

— Orain ezin dut irribarrea aurpegitik kendu. Zein  
erraza den zoriontsu izatea!

Amak hori entzun eta malkotan besarkatu nau. Ez dugu  
ezer, baina zoriontsuak gara.



# **POESIA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak



# **Udaberria heldu arte**

Irati Ramos Etxeandia  
Beasain institutua  
Beasain



Ureztatu gabeko mitxoleta zelaia da zure ahotsa.  
Mendeetan zehar ur tantarik jaso gabe ere  
zure melodiaren akorde soil batekin aski da ene buruan,  
bidegurutzean zehar noala,  
aski da zure ahotsaren petalo bat  
mundu grisa hori distiratsuz margotzeko.  
Ureztatzerik behar ez duen mitxoleta zara.

Zaindu gabeko arrosa zelaia da zure azala.  
Arrisku koloreko gorriz tindatu arren,  
segurtasun gutxieneko egoeretan  
larrialdietan, amesgaiztoetan, amildegietan barne  
zugana tiratzen duen arantzaz jositako soka.  
Toxikoa, eta aldi berean mendekotasun-sortzailea.  
Arrosa pozoitsua zara.

Aurkitu gabeko urrelili zelaia da zure begirada.  
Zer bilatzen ari den ez dakienak  
atsedenik hartu gabe eta amorerik eman gabe  
aurkitu ezineko hori bilatzen duenean bezala  
nik zure begirada bilatzen jarraitzen dut  
noizbait aurkituko dudalakoan.  
Urrelili aurkiezina zara.

Margotu gabeko magnolia zelaia da zure eguna.  
Izotza,  
olatuen bitsa,  
elurra bezain zuri mantendu daiteke,  
munduko gauzarik zailena erraz bihurtuz  
edo gutxienez horren itxura emanaz.  
Magnolia lasaia zara.

Jaio gabeko heriotzorria da zure ausardia.  
Ziurgabetasuna, erronka, zirrara  
zugana naraman edozer  
egitera ausart zintezke  
erakarpenak beldurra gaindituko balu,  
zure adorea nirea balitz.  
Heriotzorri zuhurra zara.

Lehortu gabeko krabelin zelaia da zure ukimena.  
Goizeko ordu txikietan  
gandua lausotzen hastean,  
ihintzak zure hostoak blai-blai eginda  
aski da laztan leun bat  
zutaz blaitzeko.  
Goizaldeko krabelina zara.



Usainik gabeko azafrai zelaia da zure esentzia.  
Urrunetik erakartzen duen lurrina  
baina, lurrin sendoa izan arren,  
zugana hurbiltzean,  
nabari ezin daitekeen usaina  
bat batean desagertzen dena.  
Bere usaina galtzen duen azafraia zara.

Ulertu gabeko musuluze zelaia da zure irudimena.  
Batek daki, iluna bezain argitsua  
desordenatua bezain zehatza  
koloretsua bezain zuri-beltzekoa  
den zure adimen horretan  
zer ideia liluragarri pasatzen ari den.  
Musuluze arrotza zara.

Konkistatu gabeko ira-belar zelaia da zure isla.  
Harribitxi batek adinako distira izanagatik  
ispiluaren aurrean begiratzean  
duela mende pare bat legez  
itsasoz eskuratu beharreko irla dirudizu,  
ezin baituzu zeure kabuz zure lilura nabari.  
Jaberik gabeko ira-belarra zara.

Ezagutu gabeko nartziso zelaia da zure izaera.  
Zeren, ezagutuko bazenu,  
zeure burua nik beste estimatuko zenuke  
irribarre egitean, lokartzean  
eguzkia oheratu eta zure petaloak  
banan-banan zarratzen hastean.  
Bere burua gustuko ez duen nartzisoa zara.

Musika-notarik gabeko orkidea zelaia da zure doinua.  
Haizeak noizean behin  
promes-egileen hitzak daramatzen eran  
zure hitzek  
musika tresnetatik irtendako notak dirudite,  
hilezkorrak balira bezala.  
Sinfoniarik goxoeneko orkidea zara.

Jaio gabeko bizia da gure lorea  
Eta, udaberria gugana heldu arte,  
auskalo zer izango garen.

# **Ilargia itsaspean**

Saioa Etxegia Eizagirre  
Usabalgo Laskorain Ikastola  
Tolosa



Area bustira gerturatuz,  
oinak denboraren alorrean  
ditut ernegatu.

Ekaitza zen bakoitzean,  
nire barrenean  
bide hau izan badut bide,  
ez dirau oinatzik.

Gainezka egitear dago;  
hesirik gabeko ziegan.  
Mozkortu ditu aparrak nire behatzak,  
erori da azken harresi hautsa.

Jauzi barik  
jausirik.  
Azken ur malkoa, azken negar tanta.

Ufarik laburrena  
korapilo,  
zotin,  
elur bola bailitzan...

“Haserre naukazu gaur!”  
...bisuts bihurtu da.

Baina gortinen dantzak  
ez du etenik  
uzkurtu  
eta damutu  
zabaldu  
eta askatu  
ohi dira zimurtzean.

“Aitu didazu?”  
Nire aieneek.

“Zer dela eta?”  
oihartzunari galdegin.  
“Zergatik bahitu  
inorena ez zena?  
Aire bihurtu  
iratotzen nauena?  
Eraman  
ez zegoena?”.

Istriborrik gabeko ontzia  
aingurak darama.

Edredoizko belek,  
itsas bidai dute ortzia.

Ase naiz egarriaz.

“Non galdu dira  
botiletan itotzen  
diren hitzak?”.

Hasperen baten brisa arina.

“Zuregana naramate  
barruko korapiloek,  
iraganeko nostalgiek  
zeu bezain amaiezinek”.

Berriro ere...

berriro jaitsi zait ahotsa  
berriro eztarritik gora  
berriz masailetik behera  
berri ez duen bidean zehar.

\_erriz  
\_aldin  
\_ada  
\_idexkatik      \_iluztu  
\_adaiteke  
\_adoan \_itartean  
\_estearen  
\_ulkada  
\_ultzaka      \_ihurtu.

BBbBeldur nintzen,  
malko bakoitzero bbBBeldurra nuen irensten.

Asperen taupadak,  
begi nagiak,  
bafada oro  
lehengo tokian zara berriro.

Ez dut jada sentitzen  
paparreko bihotz hau;  
zulatuta ere  
berriz zara lau.



“Esadazu neu naizela errudun  
neuk arnasten zaitudala.  
Ezkutuan egonda gau eta egun  
ura dela argitzen nauena!

Oldartu zaitetz bai nire kolkora  
eraman itzazu nire haitzak,  
ziprztindu ditzagun euren besoak  
behar nituenean ez zeunden eta”.

Zuk estaltzen ninduzun egunsentian  
bihurtuz soinekorik ederrena  
eta orain eranzten zaitudala  
urtu dadila azalaz batera.

Zeharka ditzatela gure dunak  
iritsi nahian horizontera  
kanta ditzaten nire oihuak  
sakabanatuz bitan mapetan.

Eta ni  
zu bezala urtzen  
zurekin batera kolpatzen.  
Zurrunbilotan zutitzen.

Azal osteko gaitzak  
iratar orduko amesgaitzak.

Ez dakit entzungo ote nauzun  
baina maskor bat belarripean jarriz  
Adi nazakezu.

# **Fikzio konpartitua**

Maddalen Omaetxebarria Landa  
Gernika BHI  
Gernika



Ispiluan nire buruaren bila  
eta ez dut aurkitzen,  
ispiluan nire buruaren bila  
eta ez dut ikusten,  
ispiluan nire buruaren bila  
eta ez da islatzen.

## **ISLATU**

Igogailuan behera noa  
ispiluari begira  
pentsakor  
amak aurrekoan esandakoari bueltaka.  
“Ispiluaren aurrean margotzen zaren bakoitzean  
ez dakit nor zaren”,  
ispiluko isla margotu hori  
nor den  
igarri nahiko balu bezala.

Ispiluak eta  
pinturazko katamaloak:  
errealitatea itxuraldatzeko konplizeak.  
Ispilu gabe  
ezin katamalorik margotu;  
eta katamalorik margotu ezean  
ispiluak soberan  
(ea nork duen gustuko  
benetakoa den errealitatea).

Baina zer da, bada  
errealitatea?  
“Fikzio konpartitua”.

## **IKUSI**

Eskaparate batean  
ikusi dut nire burua  
eta ikusi dut manikia.  
Begiratu diot  
hari eta niri.  
Ze disparate!  
Begi mehatxariak  
erreparatu dizkiot  
katamalo xume horren azpian.  
Postura egingo nuke  
begiratu didala,  
islaz (edo agian, nitaz)  
ikaratu guran.

Aurpegi zurbildun katamalo batek,  
“háblame en cristiano”.  
Egunkaria erosteko ere  
ezin nire ama hizkuntza erabili.  
Eta ama  
alaba gabe,

hizkuntza gabe;  
eta haren katamaloa bere tristura ezkutatzen.

Lehen orrialdea:

«Bortxaketa baten biktima adingabea  
ospitaletik atera berri da».

Biktima.

Berba hotza.

Biktima omen da

bizitza bortxatu diotenean

bizirauten duena,

bizitzari gogor eusten diona;

katamalo azpian ezkutatu beharrean.

Biktima, ala

*superbibientea?*

*Super-bibientea.*

Alboko kalean

katamalo belzdun pare bat morroik

berea den etxetik

bizilekutik

bota dute atso bat.

Eta katamalo zuridun mikrofonodunek

grabatu aurretik,

antzerkiarekin hasi aurretik,

katamalo bat eman diote etxegabeari.

Irakurketari berriz ekitean  
abeslari famatu baten argazkia.  
Neska ederra  
ezpain gorri ederrekin.  
Testuan,  
“munduari haginka egitean  
nire markaz lorrintzeko irrikatsu”,  
baina ez da onartzera ausartu  
gorri hori  
lorrindutako eta markaz jositako ezpainen  
katamaloa baino ez dela;  
gorri horrek  
ez diola uzten salatzen  
festa ez dela festa  
baten bat menpeko bada.

Elizako atean  
eskale bat  
kanpokoei eskatzen,  
barrura sartu beharrean.  
Alboan kartel bat,  
katamalo bat,  
sinestunen kartel bat;  
inorengan sinesten ez duen  
Jainko bati laguntza eskatuz.



## **AURKITU**

Gorroto ditut  
katamaloa janzten duten pertsonak.  
Batez ere  
katamalorik ez daramatenean.

Oraingoan igogailua gora doa  
eta ni erori egiten naiz,  
gorantz erori.  
Eta katamaloa apurtu zait  
eta ispilua apurtu da,  
konplize fidel bezala.

Amarengandik ezkutatu  
nauen ispiluaren zati bat  
galduta dago;  
ez daki zer egin  
katamalorik islatu ezean.  
Eta neska bat ikusi  
eta islatu du:  
errealitate mordoak oka  
egiten dabilen neska bat.

---

Behin irakurri nuen  
elefante itsuek zapaldutako herria garela.  
Nik uste  
gu geu ere  
zirkuko pailazo itsuak garela  
pinturazko katamaloen azpian  
ezkutatuz,  
elefanteekin batera guztia zapaltzen dabiltzanak.

“Katamalo soka labur  
katamalo soka estu,  
baina nork ez du amestu  
tiraka-tiraka  
litekeela apur?”

**Amodiozko hiru poema  
eta kanta etsi bat**

Iker Ondartza Padierna  
Gernika BHI  
Gernika



## 1. POEMA

Pertsona asko jasaten dabil bizi gordina:  
batzuek galduta dute egunerokotasun duina  
beste askok, gorputza dute birrina;  
zerutik iritsitako bonbek biktima.  
Bortxatutako neskatxek jada ez dakite zer den mina  
ez dutelako izan hau gabeko grina,  
aberatsek aldiz hartzen dute morfina  
basakeriak egiteak dakarren dolore ebakiezina  
aldi labur batez egiteko arina, izan arren jakina  
hau lortzeko eragiten dela sufrimendu berdina.  
Honek guztiak eragiten dit sumina,  
gorrotoa eta erresumina.  
Honek guztiak eragiten dit haserre eramanezina,  
eta dirudi odola barik zainetan dabilkidala ozpina.  
Hau bakarrik egiten bazait jasanezina  
nire etsipenak aurkitzen du muina  
honi guztiari gehitzen zaionean zure hutsaren lagina.  
Ene erregina, ene andere fina  
Ez al da izango nire ezkortasunaren grina  
zure falta eta galeren eragina?  
Zure hutsa al da bihotza zeharkatzen didan balina?  
Nire ustez baina,  
mundua ez legoke hain zikina  
elkarrekin ohean egongo bagina.  
edo gutxienez ez nuke izango arima hain lorrina;  
ikusi ahalko nuke berriz zerua urdina.

## **2. POEMA**

Munduko pertsona guztien artean berezi  
bizi guztia besteengandik ihesi  
inork ere ez zaituelako merezi.  
Horregatik egiten dizut gaurkoan poesi  
apurtzeko behingoz zure barneko harresi  
elaboratzeko gure arteko kimika-tesi.  
Ezagutu zintudanetik daukat kristolako ahulezi,  
lo egitean sentitzen dudalako gabezi  
eta zugatik ezin ditudalako nire sentimenduak hezi  
Zu eta zu bakarrik, nire bihotzeko gerezi.

### 3. POEMA

Ikasleak ahaztu egin zuen lanak zirela gaurko  
duda dauka azterketa ondo egin ote zuen  
beldur da ikasketengatik zerbaiti egin behar ote dion uko  
baina badaki bere bidea jarraituko duela zuzen.  
Gaztea badoa maitearengana  
ez daki nola egin behar dion aitormen  
zalantzan da lagunduko ote dion aurkitzen Nirvana  
baina badaki ametsa ezingo diotela ken.  
Detektibeak ez du ezagutzen hiltzailearen izena,  
zergatik egin ote zuen,  
ezta nola burutu zuen krimena  
baina badaki aurkitu arte ez duela izango atsedeen.  
Eta zuk, duda ezazu maitasuna ote den itsu  
zalantzan izan momentua ote den orain eta hemen  
kolokan jarri esandakoa ote den faltsu  
baina ziur izan zu gabe egongo naizela herren.

## KANTA ETSIA

Batzuetan aingeru, besteetan demonio  
zenbaitetan kalte, gainontzekoetan konpentsazioa  
gaur zorion, bihar depresio.

Inoiz eduki arren kooperazio  
botatzen didazunean madarikazioa  
bihurtzen zara arerio.

Eduki ez arren inolako erlijio  
eta aldera utzi arren ebanjelioa,  
egizu nire hitzez jainko guztien arteko kreazio.

Izan zaitez bizio,  
neure honetan jarraitzeko motibazioa,  
zer esan erakusten didan iluminazio.

Lagun iezaiozu neure arimari izaten libertario,  
lagun iezadazu deszifratzen txorien txioa,  
lagun iezaiezu bertso hauei edukitzen belaunaldien jario.

Zugan egin nahi dut kolonizazio  
eta bihurtu zugar dagoen lider autoritarioa  
eta horrela neureganatu zure dohainen monopolio.

Egingo naiz boluntario  
erakuts diezadazun bertsoen tradizioa,  
antzinako poeten usadio.

Inondik ere ez zaitut abio  
emadazu zu bilatzen jarraitzeko argudioa.

Non ote zaude, inspirazio?



# **Kaiolarena zen enara**

Olatz Martiartu Ayestaran  
Lekeitio BHI  
Lekeitio



Paper zuriari so  
paper zuritik haratago, agian  
burua zuri baitu  
paper zuriaren isla, agian.  
Argi zuriaren efektua ote?  
Argi zuripean  
paper zuriari so  
poeta buru zuriak  
ezkutuan diren kolore guztiez ohartu  
eta argi zuriaren zurikeriaz mintzo  
betetzen du paper zuria izandakoa.

Begiak kiskal ditzakeen edertasuna  
Euskal Herriko hauren laguna  
orlegia estaliz izara infinitua,  
zergatik da  
guztientzat  
perfektua?  
Aingeruak marrartzuz zeru itxuraz makilatua,  
Marxen hitzetan  
“gauza zera da, eraldatzea mundua”,  
zergatik dio  
poetak  
horrelako amorrua?

Merezi dute kuku bat  
apalategian bazterturiko argazki bildumek  
amaraunez josiek,  
negu gorriari ere iraun zion bizikletak  
urte mordoa atzera herdoilduak.  
Merezi du maitasun apurra  
behinola enararena zen kaiolak.  
Ezin zaio eman eta maitasunik  
benetan kaiolarena zen enarari.

Poetarentzat ez du merezi.  
Ez kuku, ez maitasun.  
Putz eginez kandelak piztu  
edanez botilak bete  
ureztatuz arrosa hazi?  
Ez arrosa hazi bihurtzeak,  
hazteak baino.  
Urtarrilaren ostean otsaila baitator.

Arima gorputzean preso  
ostra bere maskorrean  
poeta haurzaroan,  
haurzaroa poetarengan.  
Haur negarti bat sehaskan.  
Psikoanalisian pentsatu du inoiz  
Freud irakurtzea du laket eta,  
Froid ahoskatua,  
“hotza” ulertuko luke frantsesak.  
Eta elurretara berriz ere.  
Aita- seme  
ama-alaba  
gurutzatuz, berdin dio.  
Sokatiran nork irabaziko,  
barneko zubiak eraiki ala ez?  
Huraxe zen apustua.

Baietza garaile.

*Alea jacta est.*

Maitasunarekin berriz topoa  
non dago oztopoa?

Iritsi berria zaintzeko konpromisoa  
*eta carpe diem.*

Ezetzaz garaile.

Lerro paralelo bi  
historia bi grafikoki  
guraso eta haurraren irudi  
begirik ez kendu poetari.

Ez du gogoan “ama”  
“aita”.

Ez du gogoan etxea  
laguna  
agurra.

Gogoan duen bakarra da hotza  
zuria  
elurra.

Arima gorputzean preso  
ostra bere maskorrean  
poeta haurtzaroan,  
haurtzaroa poetarengan.  
Haur negarti bat umezurztegian.  
Poeta buru zuri bilakatuko zen  
zazpi urteko siberiarra  
Euskal Herrian,  
paper zuriari so  
argi zuripean.

# **POESIA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak





# **Bitxilore, zu traidore**

Maddi Aiestaran Iparragirre  
Loinazpe BHI  
Beasain



*Doinua: Itsasoa laino dago*

Petalo bat,  
petalo bi,  
BAI edo EZ  
esan hori.

BAI, maite nau  
ziur nago,  
ezin maite  
areago.  
Unez une,  
aroz aro,  
maiteko nau  
bai, zeharo.  
Gu biotaz  
haratago,  
beste ezer  
ba al dago?

Petalo bat,  
petalo bi,  
BAI edo EZ  
esan hori.

EZ nau maite,  
ez dut uste,  
ez, bederen,  
behar beste.  
Nahiz nabilen  
beti eske,  
berak izan  
nahi du aske.  
Zenbat gezur,  
gutxieste,  
ezin jasan  
horrenbeste.

BAI, hurbil da,  
bero-bero,  
goxo eta  
bihotz ero.  
Gauak hegan  
ipar, hego,  
garamatza  
egunero.  
Maitasuna  
gugan bego,  
lehen, orain  
eta gero.

Petalo bat,  
petalo bi,  
BAI edo EZ  
esan hori.

Bitxilore,  
zu traidore,  
dituzunez  
bi kolore.  
Arantza bat,  
bi zapore,  
eman behar  
dut amore.  
Beti dabil  
lozez lore,  
bera gabe  
askoz hobe!

EZ, urruti  
du bihotza,  
maitasuna  
du arrotza.  
Zergatik da  
hain mingotsa  
loriaren  
heriotza?  
Han, txinparten  
arnas hotsa,  
hemen, berriz,  
haize hotza.

# **Azken geltokia**

Mattin Apaolaza Cardona  
Hurtzaro Ikastola  
Oiartzun



Denborak darama  
ekarri zuena, gure bizipoza txikiagotzen da,  
urrezko egunak, haurtzaro maitea,  
haizeak darama hosto lehorren moduan,  
gure bidaiaren erroa aldatu-  
rik, bide gazte hura nahiz bidaiariez agurturik,  
nola eta zergatik jakin barik,  
ametsetan murgiltzen gaituen  
magala aurkitu barik.

Baina helmugara iritsi baino lehen  
aurkituko dugu bera,  
bidaia luze honetan gure bidelagun  
izango dena,  
gure gurasoek erdi aldean utzi zutena,  
bukaerara eramango duena  
itsasoak barnealdeko olatuak,  
herrestan itsas ertzera eramaten dituen bezala.

Biak batera bultzatuko dugu  
geldirik dagoen bagoi zahar hau,  
bidaiako geltoki ilunenean dago eta.

Baina bere irribarre bakar bat behar dut,  
tren zahar honen erroa berpizteko,  
hotzak dauden bagoi hauei  
distira ateratzeko.

Eta badakit helmugara iritsiko naizela,  
bera delako trena berpizteko behar dudan baporea,  
malkoz betetako bagoia husteko gai dena.

Baina bidaia guztietan bezala  
bidaiariak xede desberdinak dituzte,  
nirea, bere alboan zahartzea,  
berak berriz ezin du bere ametsa bete,  
tren zahar hau  
ni baino lehen utzi behar izan baitu.  
Ilargiak gaua bezainbeste  
behar baitzaitut,  
eguzki lore batek eguzkia bezainbeste.

Horregatik atea ireki  
eta saltatzea desio dut,  
heriotza nire bidaiako momentu honetan  
bizia baino erakargarriago baita.  
Ez ditut beste bidaiariak agurtu behar  
beraiek nik bezain ondo baitakite,  
ahitu dela,  
amaitu dela bidaia.



# **Askatasun hegoak**

Lur Gaztelumendi Beristain  
Hurtzaro Ikastola  
Oiartzun



Askatasun hegoak  
moztu dizkigute,  
hegal egin ez dezagun,  
urrun joan ez gaitezen.

Askatasun oihuak  
isilarazi dizkigute,  
garrasiak mutu bihurtuz,  
herritarron ahotsa urratuz.

Askatasun ametsak  
ezabatu dizkigute,  
lo sakonetik esnatu,  
Egia bihurtu ez daitezzen.

Askatasun urteak  
ahaztarazi dizkigute  
guda luzearen ostean  
historian atzerantz eginez.

Askatasun hitzak  
debekatu dizkigute,  
hitzaren bidez bidea egin ez dezagun,  
gure hizkuntza galdu dezagun.

Askatasun argiak  
itzali dizkigute,  
iluntasunean galdu gaitezen,  
ez dezagun bidea aurkitu.

Askatasun minutuak  
inposatu dizkigute,  
urruti dauden senideekin  
gertu egoteko denbora mugatuz.

Askatasun arauak  
mugatu dizkigute,  
legeak inposatuz,  
beraien menpe bizi gaitezen.

Askatasun sareak  
moztu dizkigute,  
haien kateekin lotuz,  
elkartasuna kriminalizatuz.

Askatasun taupadak  
gelditu nahi dizkigute,  
odola gelditu,  
gurekin betirako amaituz.

Askatasun nahia  
aldarrikatuko diegu,  
gogor eutsiz geureari.  
Borrokan jarraituko dugu.



# **Itsasoz beteriko mugetarantz**

Josu Ibareguren Elosegui  
Haurtzaro ikastola  
Oiartzun





Barnean dugun erlojua,  
bonba bat da bizitza.

Inprobisazioa  
zorionaren giltza  
egunero landatuz  
nork bere haritza  
egunean sortu  
eguneko ekintza

Ibai ederra da  
bizitzaren zirrara:  
arrokak oztopo,  
lagun zuhaitzen begirada.  
Munduan poliki, bidea eginez  
sortu nahian isla,  
itsasoz beteriko mugetan  
elkartuko gara!

Baina badugu etsai bat,  
oztopoekin batera  
laster batean  
batzen zaiguna korrontera  
ur zikinez kutsatuz  
beti arazo bera:  
Ezin lasai bizi  
bakoitza bere erara.

Txorien kantuaren erritmoan,  
ibaia doa aurrera  
ez da inoiz itzuliko  
sortua izan zen korrontera.  
Bizitza hala da eta,  
ezin itzuli iraganera,  
itsaso izatetik  
euri tanta batera.

Euriaren indarrarekin  
itsasoa da helmuga,  
jarraitutako bidea  
ibaiaren ibilgua.  
Zu aldiz ura zara  
jaio bizi hil pertsonen moduan.  
bizitza ez baita  
amaitzen zeruan.  
Itsasoan baizik.



**URRZUNOTARRAK**  
**1986-2016**



ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Abaunza	Sara	Ametsen bila	2013	Prosa
Urionabarrenetxea				
Aboitiz Correa	Xabier	Ikaro	2010	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maite duen orok...	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotorearen mendekua	2000	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Pausoak	2006	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Ikararen korridorean gaindi	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Agian	2007	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Insomnio gauetan idatzitako zirriborroa	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Hiru segundo eta erdi	2007	Poesia
Agirre Garmendia	Alaine	Azkeneko bidaian	2008	Prosa
Agirre Garmendia	Alaine	Denbora zer den	2008	Poesia
Agirre Gonzalez	Amaia	Zenbakaitzaren mugagabetasuna	2006	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Gatibu	2007	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Zeruertzaren bila	2008	Prosa
Agirre Gonzalez	Amaia	Tximeleten jolasa	2008	Poesia
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	Poesia
Agirre Madariaga	Uxue	Oroitzapenen ziega	2010	Prosa
Agirre Mosquera	Uxue	Espero ez nuena	2010	Poesia
Agirre Zapirain	Ugaitz	Malkoz josiriko bandera	2008	Poesia
Agirre Zapirain	Ugaitz	Erokerian	2009	Poesia
Aiestaran Iparragirre	Maddi	Bitxilore, zu traidore	2016	Poesia
Aizpiola Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Aizpuru Bilbao	Miren	Larunbatak	2016	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Blas	2011	Prosa
Akizu Bidegain	Maialen	Ipuin batean bezala	2011	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Hozkada	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Espaloian noraezean	2012	Poesia
Akizu Bidegain	Maialen	Zulo beltza	2013	Poesia
Akzu Bidegain	Maialen	Teloia jaisten denean	2013	Poesia
Alberdi Estibaritz	Antton	Ez dut ezer ulertzen	2002	Prosa
Aldabaldetreku Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Morte nel carnevale	2008	Prosa
Alduntzin Egizurain	Unai	Izango al du udaberririk negu honek?	2009	Prosa
Alonso Allue	Leire	Azken dantza hau	2011	Prosa
Alonso Allue	Leire	Autopsia	2012	Poesia
Alonso Allue	Leire	Alzheimerraren doinua	2012	Prosa
Alonso Allue	Leire	Jainkoaren izenean	2011	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	Poesia
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Beragatik	2015	Prosa
Amorrortu Barrenetxea	Peru	Post mortem	2016	Prosa
Amozarain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	Poesia



ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ARLOA
Ansa Arbelaitz	Garazi	Iratzargailuaren orratz herdoilduek martxan dihardute	2005	Prosa
Ansa Arbelaitz	Garazi	Oraina iraganean ahazturik	2005	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	Prosa
Apaolaza Cardona	Mattin	Azken geltokia	2016	Poesia
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Íñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	Poesia
Aranburu Guridi	Mattin	Gau luzea	2012	Prosa
Aranburu Guridi	Mattin	Zapi zurian, zirkulu ubela	2013	Poesia
